



• *eus*
Jakin 244

herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2021

Arteak euskal
identitate *bati* forma
eman zionean

ANE LEKUONA MARISCAL

Gehiegizko oroimena
eta ahanzturak
euskal literaturan

NEREA ARRUTI ETXEBERRIA

Zoparen Teoria Orokorra

GAIZKA ARANGUREN URROTZ

Lekeitio Lemoizen da

JUAN GOROSTIDI BERRONDO

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDEGAIN

JAIME ALTUNA RAMIREZ

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

Jakin^{•eus}244
herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2021



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAIAK

- 11** Arteak euskal identitate *bati* forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa

Ane Lekuona Mariscal

Gaur taldeko artisten lengoia plastikoaren hedatzearen eta Espainiako trantsizio urteetatik aurrerako Eusko Jaurlaritzaren kultur politiken arteko harremana aztertzen da, eta haren ondorioak ikuspuntu feminista batetik hausnartzen dira.

- 27** Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan

Nerea Arruti Etxeberria

Traumaren dinamika azertu nahi da literaturan, trauma bera eztabaida kritikoaren hezurdura bilakatu gabe. Traumaren denbora narratiboan jartzen da arreta, eta 2018an argitaraturiko *Fakirraren ahotsa* du ardatz.

43 Zoparen Teoria Orokorra

Identitatearen atarietan

Gaizka Aranguren Urrotz

Gizatalde bakoitzak bere zopa egiten du. Munduko zopa-lapikoen arteko interakzioa eltzeen tamaina eta suaren indarraren arabera da. Pantailaratzeak baldintzatzen du, egun, zoparen biziraupena.

63 Lekeitio Lemoizen da

Juan Gorostidi Berrondo

Euskaldunok joan den mendeko 70eko hamarkadatik aurrera bizi izan genuen 'Kontzientzia Modernorako' jauziaren ezauzgarriez egiten da gogoeta, Laboaren Lekeitioak jauzi horren erdian eta seinale gisa hartuz.

EGUNEN GURPILEAN

75 Kultura

Maialen Akizu Bidegain

83 Soziolinguistika

Jaime Altuna Ramirez

90 Glokalia

Iñigo Martinez Peña

When art gave shape to a Basque identity. Cultural policies, History of Art and gender

Ane Lekuona Mariscal, a PhD student in History of Art, analyses the relationship between the expansion of the plastic language used by artists from the Gaur group and cultural policies pursued by the Basque Government in the years following the Spanish Transition. The author reflects on the consequences of that relationship from a feminist standpoint.

Ane Lekuona Mariscal

After the trauma: excessive memory and oversights in Basque literature

The Doctor of The Literature teacher Nerea Arruti Etxeberria analyses the dynamics of trauma in literature without the same trauma structuring our critical model. The author focuses on the narrative time of trauma and its critical analysis has as its axis the novel *Fakirraren ahotsa* (The Voice of the Fakir), published in 2018.

Nerea Arruti Etxeberria

General Soup Theory. In the thresholds of identity

Gaizka Aranguren Urrotz, Doctor in Management of Immaterial Heritage and a graduate in Media Studies, reflects on the importance of the audiovisual medium in training and disseminating collective imagery and identities. Each human group produces its own soup and the interaction between soup pots throughout the world depends on their size and the strength of the heat. The author argues that screens are currently conditioning the soup's survival.

Gaizka Aranguren Urrotz

Lekeitio is in Lemoiz

Juan Gorostidi Berrondo, an expert in a range of oriental traditions and musical and political researcher, reflects on the features of the leap towards *Modern Awareness* as experienced by Basques in the 1970s, pinpointing the series *Lekeitioak* by Mikel Laboa at the heart and as a sign of that leap. **Juan Gorostidi Berrondo**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain, Jaime Altuna Ramirez and Iñigo Martinez Peña. **Various authors**

Lau artikulu elkarren hurrenkeran jarri ditugu zenbaki honetan, monografia ez den zenbaki honetan. Lau artikulu independente eta autonomo, lau ikertzailearen eskutik, nor bereetik osatua. Eta, hala ere, nahi gabean, elkarrekin elkarriketan ariko balira legez ulertu litezke. Memoria, identitateen eraikuntza, traumaren kontaketa, narrazio edo errelatuen industria... Aldez edo moldez, nor bere ertzetik eta bere esparrutik, gogoeta gai dituzten fenomenoak.

Ane Lekuonak, artearen historian ikertzaile denak, Hego Euskal Herrian, frankismoaren ondotik, EAJ alderdiaren kultur politikak baliatuz, Gaur taldearen artea euskal nortasunaren paradigma estetiko bihurtu zela azaltzen du, eta, horrela, «XX. mendeko Euskal Herriko artearen historiak legitimazio prozesu garbia bizi izan zuela eta kontaketa objektibo eta bakarraren irudia irabazi zuela». Zehazki, Gaur taldearen artearen bitartez, hau da, Txillida, Oteiza, Basterretxea eta Mendibururen artelanen bitartez. Prozesu horretan zer gorputz legitimatu ziren eta zein baztertu galdetzen du Lekuonak. Eta, zehazki, zein lotura dagoen «historia legitimatuaren eta iraganeko emakume artisten ezagutza faltaren artean».

Sarri eztabaidatzen da oraindik ere euskal gatazka deituz zenbat idatzi izan den eta zein hizkuntzatan; sarritan modu oso interesatua, jakina, baina, askoz gutxiagotan aztertu da zer nola esan den, hau da, kantitateari begiratu ohi zaio, eta ez kalitateari. Nolakotasun hori memoria eraikitze ariketa bat da, eta memoria horri begira jartzen da Nerea Arruti literatura eta kritikagintzan aditua. Horretarako, traumaren ikasketak erdira dakartza, esate batera, Tzvetan Todorov hizkuntzalari eta kritikariaren eta Susannah Radstone kultur ikertzailearen eskutik. Todorovek dio memoria lana injustizia garai-kideen aurka borrokatzea dela. Hau da, memoria nola eta zertarako etengabe landu behar den ikasgaia dela. Radstonek, berriz, trauma izendatzea gauza konplexua dela eta ez dela zuri-beltza, sare askoren gurutzaketak hartu behar direla kontuan. Hau da, gaizto eta on eskemarekin ezin dela trauma modu etiko batean aztertu.

Radstonek Dorre Bikien suntsiketaren ondorena aztertu eta kritikara eraman du, eta Todorovek Holokaustoa trauma nagusi unibertsal gisa hartua izatea aztertu du, 'Holokaustoaren industria'

kontzeptua osatuz. Hari horretatik tiraka, adibide argigarria dakar Arrutik: '*Patria*-ren industria' dei genezakeena. Hau da, Fernando Aranbururen liburua eta haren gainean egindako telesaila HBO plataforman. Bi adituen markoa aplikatuz, iraganean jasandako min bat egungo behar ideologiko jakín batzuetatik irakurtzen den prozesu kultural eta politikoa dela esan liteke. Eta harira dakar, baita ere, Saizarbitoriak eta Aranburuk berak Donostia 2016 egitarauaren barnean izan zuten solasaldi ezinezko eta iraingarria. Izan ere, oinarritzko bi ideia aipatzen ditu Arrutik, traumaren zauria manikeismo-tik harago aztertzea posible izan dadin gurean: euskaraz ondutako ikerketa kontuan hartzea eta trauma izendatzeko hizkuntzaren eta kontzeptuen gaineko hausnarketa egitea, zeri zer esaten diogun. Hori egin ezean, ahots batzuk galdu egingo dira. Traumaren ondoren bere lanik onenak idazten ari diren euskal idazleak susmargarritzat jo beharrean, ideologia azaleratu behar da, bere horretan traumaren erabilera politikoaz jabetzeko eta horretaz hausnartzeko.

Gaizka Aranguren Ondare Immaterialaren kudeaketan dokto-reak iruditeria kolektiboak eta identitate prozesu sortzaileak ditu aipagai bere artikuluan. Eta zehazki aipatzen du egun pantailak prozesu horien eraikuntzan duen indarra ukaezina dela –*Patria* HBO plataforma indartsuan egin eta bistaratu da, esate batera–. Horregatik dio «iruditeria kolektiboa osatzen duten erreferenteak pantailen bitartez transmititzean datzala gure herri existentzia bermatzen duten hizkuntza eta kulturaren biziraupenaren gakoa», eta ezinbesteko ikusten du «kultura ondare immaterialaren agerbide kolektiboen zein memoriaren transmisioa bermatuko duten bilketa eta hedatze sistematikoari ekitea ikus-entzunezko formatuan». Eta, horretaz gainera, kultura eta hizkuntza aniztasuna arriskuan jartzen duen globalizazioak sustatutako homogeneizazio eta es-tandarizazioari aurre egiteko bide bat izan litekeela.

Juan Gorostidik ere memoriaz dihardu, eta 70eko hamarkada-tik aurrera modernia- ren bat-bateko etorrerak gurean sortutako hausturak Mikel Laboaren *Lekeitioak* kantu esperimental eta sail-kaezinek islatzen eta gorpuzten dituztela. Eta Lemoizko zentral nuklearraren kontrako borroka eta *Lekeitioak* eskutik doazela, garai bertsuan egokituak eta aurpegi askotako erresistentzia baten azken urratsak biak, nolabait Laboaren *oihuek* bazetorren alderdi askotako asimilazioa –*Lekeitioena* eurena ere– iragarriko balute bezala.

Egunen gurgpilean sailean, Maialen Akizuk, Jaime Altunak eta Iñi-go Martinez Peñak gai ugari eta interesgarriak dakartzate, sakone-tik hartuta, eta JAKÍNEKO hiru artikulugile *ofizial* horiek ere elkarre-kin elkarrizketa bat harilkatzen dute.

GAIAK

11 Arteak euskal identitate *bati* forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa
Ane Lekuona Mariscal

27 Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan
Nerea Arruti Etxeberria

43 Zoparen Teoria Orokorra
Identitatearen atarietan
Gaizka Aranguren Urrotz

63 Lekeitio Lemoizen da
Juan Gorostidi Berrondo

Arteak euskal identitate *bati* forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa

Ane Lekuona Mariscal

UPV/EHUko Artearen eta Musikaren Historia Saileko doktoregaia

Behin Madrildik Donostiarako Blablacar batean nintzela, gidariak galdetu zidan ea banekien zergatik zeuden halako burdinazko eskultura handiak erki-degoko karretera eta kaleetan. Hasiera hau borobiltzeko esan nezake, gainera, Huntza taldearen *Aldapan gora* kantua entzuten zela orduantxe irratian, «gaztainondo eta pago, eskultura arraro» abesten. Hain zuzen, Txillida, Basterretxea edo Oteizaren objektu artistikoak gure paisaiaren eta herri-kulturaren elementu bihurtu dira, gure iruditegi kulturalaren parte. Alabaina, horien kokapena ez da arbitrarioa; garai, desira eta funtzionalitate zehatzekin lotzen direlakoan nago.

Artikulu honen helburua, hain zuzen, hortik doa: Gaur talde artistikoaren partaide izan ziren artisten¹ lengoaia plastikoaren hedatzearen eta Espainiako trantsizio urteetatik aurrerako Eusko Jaurlaritzaren kultur politiken arteko harremana aztertuko dut. Lotura horien arrazoiak eta nondik norakoak identifikatzen saiatuko naiz, eta prozesu horren

eta Euskal Herriko artearen historiaren finkatzearen artean dagoen erlazioa ere kontsideratuko dut. Ikuspegi feminista batetik fenomeno horrek ekarri dituen ondorioen hausnar-ketarekin amaituko dut.

Hortaz, Espainiako trantsiziora egin behar dugu salto. Ja-kina da Francoren heriotzak garai politiko berri bati eman ziola hasiera. Lehen hauteskunde demokratikoetan, EAJk emaitza arrakastatsua lortu zuen, eta 1979an Gernikako Es-tatutua sinatu zen. Gizarte mailan, aldiz, guztiz urte nahasiak izan ziren: alde batetik, ETAk indarkeriaren bidea jarraitu zuen eta gizartea asaldatu zuten gertaera ugari egon ziren. Besteak beste, testuinguru horretan loratu ziren amnistiarako mugimendua eta Askatasunaren Ibilaldia edo bestelako mu-gimendu sozialak. Giro horretan, azken ia berrogei urteetan isilpekoak ziren indar eta ekintza abertzaleek esparru publi-kora egin zuten salto eta gizarteko alderdi guztietan islatu ziren, baita kultura ulertzeko eta kudeatzeko moduan ere. Hain zuzen, Espainiako gobernu zentralak erkidegoari hain-bat eskumen transferitzeari esker, EAEn erakunde publiko eta pribatuak sortu eta berrezartzeko aukerak bideratu ziren. Funtsezko aldaketa izan zen hori, euskal kultura zabaldu, berreskuratu eta defendatzearen alde lan egiteko norabidea ekarri baitzuen. Esate baterako, beste ekimen batzuen artean, elebitasun ofiziala instituzionalizatu zen, Euskaltzaindia edo Eusko Ikaskuntza berrezarri ziren eta HABE institutua sortu zen. Hedabide berriak ere gehitu ziren, hala nola euskarazko programazioa barneratzen zuen Euskal Irrati Telebista edota Euskadiko Orkestra. Arte plastikoen esparruari dagokionez, erakunde eta programa sustatzaile berriak eratu ziren, En-koari, Kulturgintza eta Faustino Orbegozo Fundazioa, edota Gure Artea lehiaketa, kasu.

Bada, euskal kulturaren babesia beste esparru batzuetan ere islatu zen, esate baterako, herri mailako ikusizko adie-razpenetan. Pixkanaka, hiri eta herrietako espazio publikoak euskal sinboloez hasi ziren apaintzen: ikurrina eta bere kolo-reak, ekilore babeslea, baserri munduko ikonografia, Euskal

Herriko zazpi probintzietako silueta, txalaparta, haritzaren hostoa edo lauburua lurraldeko plazetan zabaltzen joan ziren. Baina kultur giro horrek kutsu euskaldun bera zuten sinbolo berriak sortzea ere bultzatu zuen, edo zaharrak eguneratzea. Fenomeno horren adibide garbia «euskal grafiak» bizi izan zuen berragerpena da, adibidez (Järlehed 2012).

Hala, arte plastikoen alorrean antzeko fenomeno bisuala gertatu zen. Hau da, aurreko hamarkadetan arrakasta handiena lortu zuten euskal artisten hizkuntza plastikoa, pixkanaka, euskal aro demokratiko berriaren ikur bilakatzen hasi zen. Zehazki, eskultura abstraktu geometrikoari egiten diot erreferentzia, Eduardo Txillida, Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea edo Remigio Mendibururen lengoaiari. Fenomeno hori agerikoa da 1975etik aurrera sortzaile horiek euskal gizarteko erakunde eta ekimen garrantzitsuenentzat egin zituzten diseinu eta logotipo ugarietarako erreparatzen badiegu. Besteak beste, Euskal Kostalde Ez Nuklear baten defentsaren aldeko logoa, Nazioarteko Amnistiarena, Eusko Ikaskuntzarena, EIA alderdi politikoarena, Bai Euskarari mugimenduarena, Euskal Herriko Unibertsitatearena, Eusko Legebiltzarrarena, eta, urteak aurrera, Kutxa banketxearena, Donostiako Orfeoiarena edo Bertsolari Elkartearena. Era berean, udalen, diputazioen edo Jaurlaritzaren enkargu eta erosketetarako, egile horien eskulturak euskal lurralde barrenean pilatzen joan ziren, gehienak piezek jatorrian zutena baino eskala handiagoan eraikiak.² Modu horretan, bertako hiri eta herrietako kaleak, plazak, parkeak, begiratokiak, errepide nagusiak edo eskualdearentzat historikoki garrantzi sinbolikoa zuten lekuak –Gernika, kasu–³ nortasun ikur berriekin jantzi ziren. Lengoaia plastikoa, ondorioz, euskal nortasunarekin eta aro

Aurreko hamarkadetan arrakasta handiena lortu zuten euskal artisten hizkuntza plastikoa, pixkanaka, euskal aro demokratiko berriaren ikur bilakatzen hasi zen

politiko berriarekin identifikatzen zen iruditegi artistiko gisa barneratu zen. Kontu garrantzitsua dela deritzot; izan ere, frankismoaren amaierarekin euskal iruditegi artistikoak bizi izan zuen plazaratze fenomeno hertsiki lotua dago, alde batetik, kulturaren inguruan agintari politikoek bideratu zuten diskurtsoarekin eta, beste aldetik, legitimatuko zen Euskal Herriko artearen historiarekin, baita ere legitimazio prozesuarekin berarekin ere. Eta, genero ikuspegitik, uste baino ondorio garrantzitsuagoak ekarri ditu prozesu horrek.

Kultur politiken nondik norakoak Espainiako trantsizioan

Demokraziaren iristearrekin, euskal esparru politikoak garrantzi berezia eskaini zion kulturaren arloari. Hala ere, hori ez zen fenomeno isolatua izan, Espainiako trantsizio urteetako bereizgarria izan zen. Giulia Quaggiok (2011) aztertu bezala, gobernu sozialista berriak kultura eta arteen alorra esentzia demokratikoaren adierazpen goren modura aurkeztu zuen, herritarrek agertoki publikoa eta eskubide zibilak berreskuratu ahal izateko irtenbide hoberen modura. Gainera, kulturarako hurbilpen horrek identitate demokratiko berri bat berreraikitze aukera eskaini zuen; hau da, atzeratua, kulturalki isolatua eta gainerako herrialde europarretatik desberdina zen Francoren Espainia atzean utzi eta nortasun 'hobetu' bat josteko bidea zirudien. Hala, estatuko gune desberdinetan kultura eta artearekiko begirada bera errepikatu zen. Eta, batik bat Euskadin eta Katalunian, politika nazionalisten alde egin zuten eskualdeetan, kulturaren esparrua identitate zapalduak berrindartzeko ekintza eremua izan zen (Marzo eta Badía 2006).

Euskadiko testuinguru politikoari begira, gogoan izan behar dugu alderdi jeltzaleak diktaduraren amaierarekin aurre egin behar izan zion funtsezko kontu bat Sabin Aranaren doktrina identitarioaren parametro arrazista eta esentzialista gainditzea izan zela. Hala, behar hori gainditzeko, alderdiak

eman zuen erantzuna zera izan zen: ordutik aurrera, euskal nazioa egiaz definitzen zuena komunitateak partekatzen zuen kultura izango zen. Irizpide aldaketa horri esker, identitate nazionala –ideologia abertzale ororen funtsa– parametro integratzaile batean oinarritu zen: nahi zuen edonork aukera zuen bertan barneratzeko (Montero 2015). Hortaz, EAJren diskurtso berriarentzat kultura baldin baten euskal nortasuna definitzen zuen irizpidea, horrek bere jatorri historikoa-rekin izan behar zuen zerikusia, nahitaez. Sabin Aranaren diskurtsoari jarraituta, iragana baitzen euskal komunitateari forma ematen zion funtsa, baita orainaldia eta etorkizuna batzen zituen giltzarria ere (Landaberea 2016). Horregatik, frankismoak suposatu zuen arrakala gainditzeko, lurraldeko ondare historiko eta kulturala berreskuratu eta eguneratzea panorama berriaren premia kolektibo gisa aurkeztu zen. Gainera, iraganaren berreskurapen horri esker, bereizgarri historiko, linguistiko eta kultural propioak gorde zituen herri euskaldunaren existentzia ziurtatu egiten zen; alegia, nazionalismoaren printzipioak bermatzen ziren.

Era berean, ondare zehatz hori suspertzeak komunitateak eta bertako herritarrek partekatzen zituzten ezaugarriak zein ziren zehazten laguntzen zuen. Hala ere, Manuel Monterok (2015) azpimarratu bezala, euskararen inguruko aipamenez gain, maila praktikoan ia ez zen zehaztu bereizgarri horiek zein ziren. Hau da, euskal kultura zer ezaugarrik osatzen zuten ez zen zehaztu EAJren diskurtsoan. Alderantziz ere: ezezkoaren logikapean oinarritu zen. Euskal kultura ‘bestearen’ kontra definitzen zen, ez zenak gorpuzten zuen. Hala, premisa hori aurrera eramateko, garbiketaren ideia erabili zen. Hau da, berezkozat jo ziren edo adostu ziren nortasun markak nabarmendu ziren, eta iruditegi horretan sartzen ez zirenak, berriz, baztertu.

Bestalde, EAJk ondare historiko eta kulturala berreskuratzearen alde erakutsi zuen jarrerak alderdiari aukerak eman zizkion orduko testuinguru politiko korapilatsuan irudi duin eta zehatz bat josteko. Zehazki, frankismoaren aurka luze

Premisa beretik abiatu ziren arren, Euskadin trantsizio urteetan kulturaren eta artearen arloa artikulatzeko bideak ez zuen gobernu sozialistak hartutako norabide bera izan

borrokatu zuen eta Errepublikaren lagun izan zen alderdi leialaren eitea zen hori. Modu horretan, gainera, testuinguruan sortzen zihoazen alderdi gazteekiko sinesgarritasuna lortzen zuen alderdiak (Arrieta Alberdi 2012). Hortaz, iragan kulturala berreskuratzeko joera tresna politikoa ere izan zen. Alde batetik, subiranotasun nazionala eta autodeterminazioaren saiakera egiteko baliabidea izan zen, eta, bestetik, herritarrek autoritatearen narratibak barneratzeko bidea.

Modernitatea eta tradizioa uztartu zituen iruditegi artistikoa

Premisa beretik abiatu ziren arren, Euskadin trantsizio urteetan kulturaren eta artearen arloa artikulatzeko bideak ez zuen gobernu sozialistak hartutako norabide bera izan. Hau da, helburu bera lortzearren –iruditegi artistiko eta kulturalaren bidez nazioarte mailan gizarte ireki eta eguneratua zuen herrialde gisa aurkeztea–, bide ezberdinak hartu ziren. Gobernu zentralarentzat, kultura modernoaren ideia ez zen abangoardia hitzarekin lotu, hura zaharregizat edo militantegizat hartu zelako (Marzo eta Badía 2006). Aldiz, euskal agintariak alderantzizko parametroetan oinarritu ziren aro berriaren irudia eraikitzeke orduan: Euskal Herriaren iraganera jo zen. Izan ere, begirada horri esker, aro demokratiko berria aurkeztuko zuen irudi plastikoak diskurtso abertzalearen oinarrizko printzipioak integra zitzakeen: euskal gizartearen eta kulturaren irudi eguneratu, ireki eta modernoazalera eta, aldi berean, nazioaren sustrai edo tradizio historikoei erreferentzia egitea. Hain zuzen, Gaur talde artistikoko kideek eta horien lengoaiak printzipio horiek bereganatzen zituzten.

Hain zuzen, 1966ko Euskal Eskola mugimendu artistikoaren parte izan ziren gainerako azpitaldeek ez bezala, Gipuzkoako Gaur kolektiboak nahiko lengoiaia plastiko homogeneo eta identifikagarria izan zuen;⁴ abstrakzioa lehenetsi zuten eta, bereziki, joera geometrikoak eta eskulturak presentzia handia izan zuten. Aurretik aipatu bezala, agintariak eskualdeko identitatearen sostengu berria kultura zela adostu arren, ez zen zehaztu euskal kulturaren bereizgarriak zein ziren: ez zenaren aurka definitu zen. Hala, abstrakzio geometrikoaren lengoaiak zehaztugabetasun horri erantzuteko aukera eskaintzen zuen. Izan ere, estatu mailako berrogeita hamarreko hamarkadako arte kritikak abstrakzioaren irakurketa apolitikoa orokortu zuen eta, ondorioz, interpretazio askotarikoak jaso zitzaizkeen plastika ireki gisa jaso zen abstrakzioa. Bestetik, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, Oteiza eta inguruko artistek euskal kulturarekiko erakutsi zuten interes eta inplikazioarengatik, frankismoaren amaieratik aurrera eta, batez ere, trantsizio urteetan, beren lanak begirada abertzaletik hasi ziren irakurtzen eta balioztatzen. Modu horretan, Gaur taldearen partaide izan ziren artisten lengoaiak bi baldintza horiek elkartzen zituen. Alde batetik, kontu existentzialista, unibertsal eta metafisikoekin lotzen zen estiloz hartu zen eta, aldi berean, tokikoarekin, euskal iraganarekin uztartzen zen artetzat.

Hortaz, irudi ezin aproposagoa zirudien aro demokratiko euskal erakundeak nazioarteko esparrura proiektatzeko desirari forma emateko. Hau da, alde batetik, abstrakzioari egokitu zitzaion izaera irekiari esker, bat zetorren iruditegi horretan islatuta edo identifikatuta ikusi nahi zuen orok aukera hori izateko premiarekin. Bestetik, tokikoa maila globalarekin uztartzeko desira ere betetzen zuen. Izan ere, EAJren diskurtsoan, Europako dinamiketan parte hartzeko borondatea konstante bat izan zen, Europako Batasunak espazio berri bat suposatzen baitzuen alderdiaren asmo abertzaleentzat. Baina, gainera, lengoiaia plastiko horren erabilerak euskal kulturari forma bisuala emateko ere balio zuen. ‘Beste’

horren aurrean definitzeko hautuari jarraiki, burdinazko edo harrizko eskultura abstraktu geometrikoak gai ziren espainiar iruditegi pasiotsu, barroko eta zaratatsutik bereizteko eta identitate berri bati gorputza emateko: hoztasunarekin, seriotasunarekin, razionaltasunarekin edo gogortasunarekin lotzen zen identitate bat.

Diskurtsoen barneratzea

Esan bezala, hauxe da artikulu honen hipotesia: Gaur taldeko artista famatuena iruditegia euskal identitatearen parte bilatzeko prozesuak garai zehatz bateko desira eta behar politikoen harremana duela, eta fenomeno horrek ondorio erabakigarriak ekarri dituela. Alabaina, horretarako aintzat hartu beharreko galdera bat hauxe litzateke: nola bihurtu zen artista protagonista horien iruditegi artistikoa euskal identitatearen ikur? Nola barneratu eta bereganatu zuen euskal komunitateak iruditegi artistiko hori?

Euskal Herriko artearen historiako liburuetan edo artista ezagunen ibilaldiak landu dituzten obretan, oro har, galdera horri honela erantzun zaio: 1970eko hamarkadatik aurrera euskal gizarteak iruditegi hori berezkitzat hartzea, artistek behar kolektibo hori entzuteko izan zuten gaitasun eta egokitasunari dagokio. Hau da, Mendebaldeko artearen historian sekulako pisua duen artista-jeinuaren kategoriarekin azaldu izan da fenomeno.

Beste irakurketa bat proposatzen dut oraingoan, eta, horretarako, kontuan hartu beharreko faktore bat honakoa da: iruditegiaren ezarpena ez zela diskurtso politikotik inposatutako elementutzat jo, baizik eta herri eremutik zetorren adierazpen gisa ulertu zela. Hain zuzen, diktadura urteetan nazioartean arrakasta lortu zuten eta euskal kulturaren alde egin zuten artista horiek, demokraziaren ezarpenetik aurrera, pixkanaka, babes instituzionala jasotzen hasi ziren. Artista horien obrak espazio publikoan kokatzen hasi ziren,⁵ herrialdeko arte areto zein museo nagusietan beren lanak

erosten hasi ziren eta horien erakusketek ere gora egin zuten nabarmenki. Aldi berean, aurretik komentatu moduan, artista horiek herri mugimenduen aldeko ekintzetan parte hartzen jarraitu zuten. Hori dela eta, instituzio eta herri mailan babesa jaso zuten figurak izan ziren.

Gauzak horrela, kontaktaren egituratze eta barneratzearen inguruan proposatzen dudan irakurketa zera da: frankismoaren amaierarekin gizartean bilatu zen helburu edo desira orokorra Francoren diktaduraren behin betiko gainditzea eta euskal gizarte berritua altxatzea izan zenez, prozesu horretan parte hartu zuten agenteen indarrak uztartu egin ziren, horien jatorria eta izaera desberdinak ziren arren. Indar instituzional zein herrikoiek edo indibidual zein kolektiboek desira amankomun baten alde egin zuten lan. Panorama horretara hurbiltzeko, lagungarria deritzot Antonio Gramsci teorialari marxistaren printzipioak kontuan izatea; hau da, ulertzea kulturaren espazioa borrokaleku edo eztabaida gunea dela beti. Indar heterogeneo eta zatituek, menderatzaile eta mendekoek beraien artean borrokatu edo lehia egiten dutela hegemoniaren bila. Begirada horren baitan errazagoa da ulertzea, batetik, demokraziaren etorrerarekin, ordura arte kutsu disidentea izan zuten herri mailako ahaleginek komunitateko espazio publiko eta ordezkagarrietara iritsi nahi izan zutela, eta, bestetik, botere instituzionalek behe mailako indar eta energia berritzaile horiek bereganatzeko borondatea izan zutela.

Ikasitako historietatik askatzeko premia

Arte historialariaren begiradatik, ezinbestekoa deritzot galdetzeari zein lotura dagoen Gaur taldeko artisten iruditegi artistikoak bizi izan zuen hedatze fenomenoaren eta Euskal Herriko artearen historiaren artean. Izan ere, Espainiako gerratik aurreragoko Euskal Herriko artearen historia ere, oro har, demokraziaren etorrerarekin hasi zen idazten; alegia, orain arte erreparatu diogun testuinguru soziopolitiko

berean. Horregatik, finkatzen zihoan lurraldeko artearen kontaketa historikoa ere gizarte mailan gertatu ziren pultsio eta desira horien fruitua eta isla izan zen, baita ere orduko genero egiturena. Adibidez, demokraziarekin, euskal kulturaren inguruan mintzatzen zen arte kritika eta literaturak gora egin zuen; eta idatzi horiek zuten idaztankerari begiratuz gero, hiru estiloren nahasketa identifikatu zitekeen: joera abertzalea, marxista edo soziologikoa eta Oteizaren idatzien eragina zuen estilo filosofiko-antropologikoa. Esan bezala, gizarte mailan bizi ziren energien isla ziren idatzi horiek (Lekuona 2020). Bestalde, artistek berek burutu zituzten idatziek ere eragin handia izan zuten kontaketa horri forma ematean, eta beren buruak legitimatzeko bidea ere izan zitzaien. Hori dela eta, eratzen zihoan narrazioan hobetsi ziren artistak beren ibilbidean diktaduraren aurkako jarrera erakutsi zutenak edota euskal kulturaren alde egin zutenak izan ziren. Norabide berean, taldekatze artistikoak edo horien saiakerak bereziki ongi zetozen euskal iragan artistikoaren inguruan eman nahi zen irudi edo definizio horrekin. Hori dela eta, Arantzazuko basilikaren proiektua, Bizkaiko Estampa Popular taldea edo Euskal Eskola mugimendua kontaktaren ardatz garrantzitsuak bihurtu ziren, eta protagonistak Oteiza, Txillida, Basterretxea edo Ibarrola artistak izan ziren, besteak beste. Hau da, ustez berezkoa zitzaion esentzia antifrankista eta borrokalaria zuen Euskal Herriko artearen historia bat joan zen errotzen, data, protagonista eta gertakizun mugarriak zituen kontaketa bat.

Historia nola errotu zen galderari erantzuteko, kontuan izan behar dugu, urteak aurrera egin ahala, arte kritikan hasi ziren arte historialari horietariko asko, ondoren, erakundeetara pasa zirela: unibertsitateko irakasle edo erkidegoko museo eta arte areto garrantzitsuetako zuzendaritza postuetara igo ziren. Era berean, lurraldeko museo garrantzitsuen bildumatze eta erakusketa politikak ezinbestekoak izan ziren kontaktaren legitimazio prozesu horretan; Arte Ederren Fakultateak edo Arteleku espazioak bitartekaritza

lan esanguratsua egin zuten hurrengo belaunaldietako artistengan, eta, bestetik, ikusi bezala, Gaur taldeko kideen iruditegi artistikoaren hedatzea gertatu zen. Elementu guztiak diskurtso zehatz baten ezartze eta bermatzearen lekuko eta partaide izan ziren. Esan dezakegu, ondorioz, hamarkada gutxitan xx. mendeko Euskal Herriko artearen historiak legitimazio prozesu garbia bizi izan zuela eta kontaketa objektibo eta bakarraren irudia irabazi zuela (Lekuona 2021).

Aitzitik, feminismoen ekarpen garrantzitsuenetako bat objektiboak diruditen diskurtsoak zalantzan jartzea da. Kasu honetan, ikusi dugu Gaur taldeko kideen iruditegi artistikoak bizi izan zuen hedatze prozesuak garaiko agintari politikoaren diskurtsoarekin harremana baduela eta, aldi berean, eskutik doala Euskal Herriko artearen historiaren errotzarekin. Hala, begirada feministek ahalbidetzen duten posizio kritikoaz baliatuta, uste dut fenomeno beraren aurrean beste galdera batzuk plazaratu behar ditugula. Esaterako, iruditegi artistiko hori identitate euskaldunari forma emateko gai izan bazen, identitate horren atzean zein gorputz zegoen? Zein lotura dago historia legitimatuaren eta iraganeko emakume artisten ezagutza faltaren artean? Zein gauza bera iruditegi horren eskutik joan zen artearen historiarekin. Zein lotura dago historia legitimatuaren eta iraganeko emakume artisten ezagutza faltaren artean?

Bi galdera horiek elementu komun bat dute, azken finean, jasotako oroimen beraren adar ezberdinak direlako. Alegia, jaso dugun herentzia kultural zein artistikoaren ardatza gizona izan da. Adibidez, ikusi dugun moduan, Espainiako trantsizioko kultur politikagintzan euskal kulturari irudi edo

Iruditegi artistiko hori identitate euskaldunari forma emateko gai izan bazen, identitate horren atzean zein gorputz zegoen? Zein lotura dago historia legitimatuaren eta iraganeko emakume artisten ezagutza faltaren artean?

forma bat ematea premia garrantzitsua izan zen, eta horretarako erabili zen estrategia iruditegi espainiarraren kontra egitea izan zen. Alabaina, gorpuzkera hori, ezinbestean, balio eta ideia batzuekin lotzen zen, zehaztu zen iruditegi artistikoan agerikoa zen moduan. Hau da, Oteiza, Txillida edo Basterretxearen eskultura abstraktu-geometrikoek hispanitate estereotipatutik aldentzeko aukera ematen zuten moduan, obra horiek euskal identitateari izaera, irudi eta balio zehatzak gehitzen zizkieten, besteak beste, hoztasunarena, arrazoimenarena, kontrolarena edo seriotasunarena. Ondorioz, Mendebaldeko pentsamendu dikotomikoaren tradizioan gizontasunaren balioekin lotzen ziren berberak ziren euskalduntasunari erreferentzia egin zioten ideiak. Hau da, iruditegi femeninoarekin lotu izan diren pasioaren, sentiberatasunaren edo goxotasunaren kontrakoa zen euskaldunari zegokion ideala.

Gainera, artelan horien teknika eta materialek are gehiago azpimarratzen zuten egiaz iruditegi artistiko horrek berreskuratu nahi zuen euskal kultura ez zela unibertsala, baizik eta gizonari egiten ziola erreferentzia. Adibidez, burdinaren eta burdinolaren teknikak lurraldeko industria tradizioari egiten zion aipamena. Harria eta egurra ere, eskualdeko paisaia naturalari eta historiaurreko megalitoei erreferentzia egiteaz gain, gizasemeen tradizioarekin lotzen ziren, adibidez, zurgintza edo errementaritzaren ogibidearekin, baserri munduko kirol eta tradizioekin, aizkolaritza edo harri jasotzearekin. Bestetik, haritzaren erabilerak, besteak beste, Gernikako arbolaren sinbologiari egiten zion aipamena; Euskal Herriko zuhaitz mitifikatuena izanik, nazioaren *pater* 'aita' konnotazioa gehitu izan zaio haritzari, bere adarretatik herriaren leinua loratzen dela. Gainera, material gogor horien langintzak obren karga maskulinoa areagotzen zuen; indar, ausardia eta zuhurtasunaren balioak gehitzen zitzaizkien obrei, baita euskal artisten irudiari ere. Alegia, material eta prozedura horiek guztiek gizonen kulturari egiten zioten aipamena. Beraz, euskal identitatearen isla izan nahi zuen

iruditegi artistikoa, egiaz, ez zen neutrala, baizik eta gizontasun heterosexualaren irudiaren baitan gorpuztu zen. Ondorioz, inkontzienteki bazen ere, euskal identitate edo ideal horrekin bat ez zihoan komunitateko pertsona ororen aukera bakarra 'beste' horretan islatua sentitzea izan da, 'beste' horren historian eta irudian.

Proposatutako bigarren galderaren erantzunak erabateko lotura du azken ideia horrekin. Izan ere, Euskal Herriko artearen historiaren ardatza ere gizona izan da. Esan bezala, trantsizioko urteetatik aurrera Euskal Herriko arteaz mintzatzen zen literaturak gora egin zuen, eta bertan gehien baloratu ziren arte eta artistak disidentzia politikoarekin nolabaiteko lotura zuten horiek izan ziren. Borroka anti-frankista eta euskal kultura berrindartzeko interesa, ustez, euskal artistek berezkoa zuten izaera politikoarekin lotu zen, eta hura balioztatu zen oroimen kolektiboa josteko orduan. Diktaduratik demokraziarako aurrerapausoa garapen plastikoaren azalpen berarekin lotu zen, biak modernitatearen garapenaren adibide zirelakoan. Hori dela eta, euskal artista-
ren irudi zehatz bat elikatu zen: ausardiaren, gogortasunaren, konpromiso politikoaren eta akzioaren balioak berezkoak zituen gizasemearena. Beraz, esan daiteke Espainiako gerratik aurreragoko Euskal Herriko artearen historia gizontasunaren irudiaren baitan eta haren balioetan oinarritu zela, eta historiaren forma horrek erabateko eragina izan duela iragan kulturalera oroimenean emakume artisten eza-gutzarik ez izatean.

Hau da, emakume artistek beren testuinguruan bizi izan zituzten oztopo praktiko eta sinbolikoez gain, kontaktaren izaera androzentrikoa ere eragile izan da iraganeko emakumeen sormen artistikoa marjinetan uzteko orduan. Esate baterako, narrazioaren logika androzentrikoaren ondorioz, tradizionalki feminitateari egokitu zitzaizkion lore, paisaia eta natura hilen irudikapen figuratiboak, adibidez, bigarren mailako artetzat jo ziren, irakurketa apolitiko eta estetizistak bakarrik jaso zitzaizkien obren modura. Eta, aldi berean,

printzipio feminista edo profeministatzat jo ditzakegun kontuak landu zituzten artisten lanak ez ziren kontu sozial edo politikotzat jo garai hartan, eta, ondorioz, horiek ere jaso dugun oroimen kolektibotik kanpo geratu ziren.

Hortaz, gure oroimen kolektibo kultural eta bisuala Espainiako trantsizioko urteetan zehaztu ziren kultur politiken eta norabide teorikoen emaitza dela ondorioztatu dezakegu. Frankismoa gainditu zuen euskal kultura iraunkor zein modernoa jarri nahi izan zen diskurtsoaren erdigunean, eta, horretarako, historia eta iruditegi kulturalen berreskuratzea ezinbesteko erremintak izan ziren. Alabaina, unibertsaltasuna

Gure oroimen kolektibo kultural eta bisuala Espainiako trantsizioko urteetan zehaztu ziren kultur politiken eta norabide teorikoen emaitza dela ondorioztatu dezakegu

eta objektibitatea helburu baziren ere, gizona izan zen lurraldearen oroimen artistiko horren ardatza. Horregatik guztiagatik, gizon heterosexual zuriak ez garen herritar guztiok 'beste' horren iruditegian eta historian babestu eta islatu behar izan dugu. Horregatik da garrantzitsua jaso ditugun historiak zalantzan jartzea, horiei balioa ematen

dieten irizpideen atzean zein parametro dauden galdetzea eta horiek bistaratzea. Izan ere, jasotako historien zama subjektiboa ikusgarri bihurtzean, beren izaera partziala onartzen dugu, eta, beraz, beste historiak berreskuratu, balioztatu eta gure egiteko aukerak irekitzen dira. Azken finean, komunitatea osatzen dugun gizabanako ezberdinak identifikatuak senti daitezkeen historiak berreskuratzea berdintasunaren alde egitea da, baita jasotako indarkeria historikoak erreparatzearen aldeko apustua egitea ere. 🍷

Oharrak

1. Amable Arias, Rafael Ruiz Balerdi, Nestor Basterretxea, Eduardo Txillida, Remigio Mendiburu, Jorge Oteiza, Jose Antonio Sistiaga eta Jose Luis Zumetak osatu zuten taldea.
2. Adibide gisa: *Herri txistu otza* (Remigio Mendiburu, 1975, Donostia, enkargu pribatua), *Haizearen orrazia* (Eduardo Txillida, 1976, Donostia, artistak udalerriari egindako dohaintza), *Amildegiko zarata* eta *Amildegiko haizea* (Remigio Mendiburu, 1977, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa). Baita urbanismo edo arkitektura proiektuak ere: Gasteizko Foru Plaza (Eduardo Txillidaren parte hartzea, 1979, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia), *Bakearen usoa* (Nestor Basterretxea, 1988, Donostia, Donostiako Udala), *Bizkaia. Burdinezko olatu bat* (Nestor Basterretxea, 1989, Leioa-Getxo, Bizkaiko Foru Aldundia), *Flemingi eskainitako monumentua* (Eduardo Txillida, 1990, Donostia, Donostiako Udala), *Burdinari gorazarrea III* (Eduardo Txillida, 1991, Bilbo, BBV), Arriaran urtegiko dekorazioa (Nestor Basterretxea, 1994, Beasain, Gipuzkoako Foru Aldundia), *Askatasuna biribil zabaltzen da* (Nestor Basterretxea, 1994, Gasteiz, artistak udalerriari egindako dohaintza), *Bakearen gurutzea* (Eduardo Txillida, 1997, Donostia, artistak hiriko Artzain Onaren elizari egindako dohaintza), *Txopitea eta bakea* (Jorge Oteiza, 1998, Eibar, Eibarko Udala), *Pietatea* (Jorge Oteiza, 1999, Donostia, Donostiako Udala), *Bertsolaritzari omenaldia* (Jorge Oteiza, 1999, Zarautz, Eusko Jaurlaritza) edo *Mi siesta* (Jorge Oteiza, 1999, Zarautz, artistak Joseba Garateri egindako dohaintza).
3. Eduardo Txillida, *Gure aitaren etxean*, 1988, Gernika, Eusko Jaurlaritzaren enkargua.
4. Euskal Eskola mugimendua (1966) artearen bidez euskal kultura sustatzeko helburua izan zuen inizatiba artistikoa izan zen. Probitzia bakoitzeko azpialde bana osatu nahi izan zen: Gaur Gipuzkoan, Emen Bizkaian, Orain Araban eta Danok Nafarroan, nahiz eta azken hori ez zen gorpuztu. Guztien artean, talde gipuzkoarrak izan zuen ibilaldi emankorra, 1969an desegin zen arte.
5. Irakurketa orokor honetan, Jorge Oteiza salbuespen kasua da; izan ere, artista EAEko agintari eta erakunde publikoekiko oso kritikoa izan zen. Horren adibide garbia da bere ondarea Nafarroako Gobernari eman izana. Hori dela eta, XXI. mendeko lehen hamarkadaraino itxaron behar izan zen EAEko lurraldean artista oriotarraren lanak ugaritzeko.

Bibliografia

- Arrieta Alberdi, L. (2012): 'Por los derechos del pueblo vasco. El PNV en la Transición (1975-1980)', *Historia del presente* 19, 39-52.
- Järlehed, J. (2012): 'La letra vasca. Tradición inventada, nacionalismo y mercantilización en el paisaje lingüístico en Euskal Herria', in T. Fernández Ulloa (arg.): *Ideology, Politics and Demands in Spanish Language, Literature and Film*, Cambridge, Cambridge Scholars Publishing, 334-357.
- Landaberea, E. (2016): *Los «nosotros» en la transición. Memoria e identidad en las cuatro principales culturas políticas del País Vasco (1975-1980)*, Madril, Tecnos.
- Lekuona Mariscal, A. (2020): "Entrada denegada'. Revisión feminista de la crítica y escritura del arte del tardofranquismo y la Transición en el País Vasco', in E. M. Ramos Frendo (zuz.): *Géneros y subjetividades en las prácticas artísticas contemporáneas*, Sevilla, Arcibel, 252-265.
- (2021): 'El imaginario artístico de 'lo vasco'. Prácticas y políticas culturales a finales del siglo XX', *Revista Historia Autónoma* 18, 165-182.
- Marzo, J. L.; Badía, T. (2006): 'Las políticas culturales en el estado español (1985-2005)' (www.soymenos.net/politica_espanya.pdf).
- Montero, M. (2015): 'La reformulación identitaria del nacionalismo vasco. La ideología del PNV tras la dictadura franquista', *Historia Actual Online* 38(3), 7-21.
- Quaggio, G. (2011): 'Política cultural y transición a la democracia: el caso del Ministerio de Cultura UCD (1977-1982)', *Historia del presente* 17, 109-125.

Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan

Nerea Arruti Etxeberria

UPV/EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
Saileko irakaslea

Joseba Zulaikari

«Ai, hilobi! Ai, ene eztei-ohel!»
Antigona

Traumari buruzko ikasketak: eztabaidak eta erronkak

Memoria ikertzean, marko teoriko berrien artean, traumari buruzko ikasketen ikuspuntua sartu berri da euskal literaturaren kritikagintzan. Artikulu honetan aztertu nahi dut zein izan daitekeen, oro har, euskal literatura aztertzean, ikuspegi horren ekarpena; eta zer ekar diezagukeen ebaluatzeko, ezinbestezko iruditzen zait ikasketen ibilbidea, eztabaidak eta erronkak barne hartzea.

Gurera ekarri baino lehen, hastapenetara jo beharra dugu, kanpoan eginiko ibilbideak badu-eta garrantzirik: mundu anglosaxoian, Cathy Caruthen *Unclaimed Experience. Trauma, Narrative and History* liburuak eman zien ikusgarritasuna trauma ikasketei; 1996an argitaratu zen, eta mugarrria da traumari buruzko ikasketetan. Caruthek, zeina literatur

kritikagintzatik baitator, eutsi egiten dio Freuden traumaren interpretazioari, eta adierazten du traumaren zauria nekeza dela irudikatzen, traumaren ondoren jasaten den ahanzturarengatik eta denboralizazio errepikakorrarengatik; hala, ia ezinezkoa da traumaren muinera zuzenean gerturatzea. Ibon Egaña kritikariak, 2019ko ‘Heridas que hablan: sujeto, género y trauma en la narrativa vasca’ artikuluan, aipatu marko teoriko hori aplikatzen du gure testuinguruan –Freuden zauria, Caruthek literatur kritikara eramana–. Traumari buruzko ikasketak ez dira goiz iritsi euskal kritikagintzara, ezta berandu ere, garaiz baizik: traumaren ondorengo zauria urteotan azaleratzen ari zaigunez gero, ikuspuntu kritikoa –eta horren inguruko eztabaida– etiketa dezagun *hic et nunc*; halaber, Euskal Herriko egungo testuinguruari dagokion gogoeta kritikoa da traumaren ondorengo teoria.

Egañaren artikulua ekarpen garrantzitsua dakarkio euskal kritikagintzari, traumaren ikuspuntutik irakurtzen baititu hiru idazleren lanak –Uxue Apaolaza, Agurtzane Juanena eta Eider Rodríguez-enak–, generoarekin uztartuz; azterketa kualitatiboa da berea, azterketa kuantitatiboak garaile diren testuinguruan. Sarri eztabaidatzen dugu gatazkaz zenbat idazten den, eta gaia ez da inolaz ere neurri berean azterzen kualitatiboki.

Guretik kanpo, traumari buruzko ikasketak 90eko hamarkadatik daude indarrean; hori dela-eta, aspaldi agertu ziren ahots kritikoa memoriari buruzko ikasketen esparruaren barruan. Garrantzitsua iruditzen zait, euskal literatura aztertze-ko, memoria lana behar dela dioten ahots kritikoei diotena. Bi kritikariren hausnarketa aurkeztu nahi dut: Tzvetan Todorov testuinguru frankofonoan eta Susannah Radstone testuinguru anglosaxoian; izan ere, beren kritika eta autokritika oso emankorra suertatu dakiguke euskal kritikagintzan, aukera ematen baitigu arazo batzuk modu esplizituan azalertzeko.

Tzvetan Todorovek dio memoria ez dela orainean erabili behar, zeren, memoria-lanak egun funtzio politikorik balu, hala erabiltzea ez bailitzateke etikoa izango; izan ere,

indarrean dauden botere-harremanen alde egiteko arriskua izango genuke, eta ez genuke lortuko memoria-lanak lortu behar duena, hau da, injustizia garaikideen aurka borrokatzea. Todoroven saiakera, *Les abus de la mémoire*, 1995ean argitaratu zen; gaztelaniazko itzulpena, berriz, 2008an eman zen argitara:

Edonola ere, iraganeko lazgarrikeria ezagutu dutenek orainaldian, ehun kilometrora, edota etxetik gertu, ozen hitz egin behar dute lazgarrikeriaren kontra. Iraganaren gatibu izan beharrean. Pairatutakoa orainaren zerbitzuan jarriko dugu, memoria –eta ahanztura– justiziaren mesedean jarri behar diren legez. (Todorov 2008: 62)

Todoroven ikuspegiari jarraitzen badiogu, etikarik gabeko memoria-lana ez da bidezkoa. Memoria-lana eta ekintza politikoa elkarrekin joan beharko lirateke une oro. Deontologia lantzerantz behartzen gaitu Todoroven pentsamenduak: ez da nahikoa memoria gai gisa jorratzea eta bere garrantzia azpimarratzea; horrez gain, nola eta zertarako etengabe landu behar den ikasgaia dugu. Esate baterako, memoria ikasketen baitan ardatz bihurtu den Holokaustoa trauma paradigmatikotzat sailkatzea kritikatu du Todorovek. Hau da, bakarra eta parekorik ez duen traumatizat sailkatzeak erabat ideologikoa den hierarkia bat inposatzen du (Todorov 2008: 37). Ez da aurretik gertatutako Afrikako esklabotzaren trauma izugarriaren pareko? Neurtzea bera ez al doa traumari buruzko ikasketen helburuen aurka? Trauma batzuei ikusgarritasun handiagoa ematen diegun neurrian, traumari buruzko ikasketek ez dute hausnartzen barne hierarkia eta sailkatze horien inguruan; baina fenomeno konplexuak, eta halakoa da trauma, ezin dira ulertu hausnarketa sakonik egin gabe.

Guretik kanpo, traumari buruzko ikasketak 90eko hamarkadatik daude indarrean; hori dela-eta, aspaldi agertu ziren ahots kritikoak memoriari buruzko ikasketen esparruaren barruan

Norman Finkelsteinek argudio hori findu zuen 2000. urtean *The Holocaust Industry* liburuan. Aditu horrek dioenez, Holokaustoari buruzko diskurtsoa ez zen II. Mundu Gerra bukatu ahala eraiki, 1967an baizik, Israelen eta arabiarren arteko gerraren garaian, garai hartako behar ideologiko zehatzetxei erantzun ahal izateko. Finkelsteinen azterketaren arabera, trauma komodifikatu egin daiteke, helburu jakin batzuk betetzeko. Finkelsteinek prozesu horren ereduaz hartzen du NBC telebista kate iparramerikarrak 1978an eman zuen *Holocaust* telesaila, zeinaren bidez, betiere bere ustez, Holokaustoari kontakizun jakin bat ezarri zitzaion.

Gure testuinguruan, HBO plataformak ekoiztutako *Patria* telesailak antzeko komodifikazio prozesua bideratu du. Euskal gatazka komodifikatu da, iraganean jasandako mina egungo behar ideologikoetatik irakurtzen den heinean. Garbi dago ikus-entzunezko ekoizpen hori zuri-beltza dela ideologikoki, kanpoko erakusleihoan jartzeko egokia (ikus, bukatu aurretik, *El Mundo*-k argitaraturiko artikulua: 'Un día en el rodaje de *Patria*: las heridas de ETA según HBO'), eta ez, hain zuzen ere, barne-memoria lana bideratzeko tresna bat. Telesail gisa zabaldu baino lehen, liburuaren xalotasuna eta ñabardura eza nabarmendu zituen Jennifer Croftek *The New York Times* egunkarian (2019): «*Patria* intrigarik gabeko telenobelaren eta hausnarketa moralik gabeko Dos-toievskiren artean dabil».

Susannah Radstonek ikuspuntu teorikotik kritikatzeko dituen traumari buruzko ikasketak, eta, Todoroven saiakera ez bezala, 2001eko Dorre Bikien suntsiketaren ostean argitaratu zuen bere kritika, hau da, igurikimenean horizontea guztiz aldatu zen unean. Bere iritziz, baldin eta trauma bada aditzera eman ezin dena, askotan ezinezkoa da trauma bera izendatzea. Traumak siltzera behartzen du trauma jasan duena; orduan, noiz jakin komunika ez daitekeena trauma den ala ez? Are gehiago, PTSD (*Post Traumatic Stress Disorder*) edo traumaren ondorengo estresa ikertzen duten adituek diote trauma jasaten duenak ez duela trauma dela objektiboki

erabakitzen; batzuetan, gertakari larri baten ondoren subjektuak ez du traumatizat jotzen, eta, alderantziz, hain larria ez den gertakari baten ondorioz subjektuak trauma jasaten du. Ezin da trauma zuri-beltzean ikertu, hala dio Radstonek, azken finean, sare askoren gurutzaketak (ikerketa, politika eta behar psikologikoak) osatzen baititu traumari buruzko ikasketak, egitasmo intelektual gisa. Ezin dira sinplifikatu hain konplexuak diren ikasketak. Traumari buruzko ikasketek ikusgarritasun handia lortu dute, preseski, gure garai manikeoan; baina pentsalari horren aburuz, zuri-beltzeko ikuspegitik ezin da trauma modu etiko batean aztertu: «Hau da, traumari buruzko ikasketak, egun Mendebaldeko politika eta kultura nagusi diren joera manikeisten bideratzaile izan ordez, horien brida izan behar dira» (Radstone 2007: 26).

Traumaren hizkuntza eta denbora

Maiz, euskal literaturari buruzko lan akademikoetan, ez dira aintzat hartzen bertako eztabaidak: hor badago funtsezko arazo intelektual eta metodologiko bat. Horren harira, hau dio Anjel Lertxundi idazleak: gaztelaniaz idazten denean euskal kulturari buruz, ez da aipatzen euskaraz argitaratzen duten adituen erreferentziarik. Hutsune akademiko horiek eragin nabaria dute traumari buruzko lanen gaineko ikerketen sakontasun eta hedapenean. Idazle jakin batzuen lanak itzultzen badira ere, euskaraz eginiko hausnarketak eta kritikak, hau da, euskaraz ondutako kritikagintza eta pentsamendua, ez dira kanpora ateratzen. Bi hizkuntzen arteko zubigintza ahula horma bihurtzen da indarkeriari buruzko eztabaidetan; horren adibide, Donostia 2016k elkarbizitzaren izenean antolatu zuen Saizarbitoria eta Aranbururen arteko elkarrizketan, nabarmena izan zen zubigintza gabezia, eta hori gabe ezinezkoa da komunikazio eraginkorra (Donostia 2016: 2016). Hizkuntza desberdinetan ekoizten den pentsamendu kritikoa ez bada partekatzen, ideien eztabaida bertan behera erortzen da. Anjel Lertxundik adibide

zehatz bat erabiltzen du bere artikuluan: Koldo Mitxelena Pío Barojari eginiko elkarrizketa (euskaraz *Egan* aldizkarian 1955ean argitaratua) du iturri, eta testuinguru horretatik at erabat ezezaguna zen Barojaren aipu batean oinarrituz osatu zituen bere gogoetak:

Euskal kulturaz (arteaz, musikaz, literaturaz...) ari den katedrati-ko, tesi-zuzendari eta doktoregai, komisario, arte-kritikari erdal-dunen bibliografietan oilo bat pixa egiten topatzea baino nekeza-goia da ikustea euskaraz ari diren aditu eta kritikarien aipamenik. Ez dizute deus esango Juan San Martin edo Martin Ugalderekarpenez, Haizea Barcenillak edo Xabier Gantzarainek idatzitakoez, Leire Lopez Ziluagaren edo Ismael Manterolaren kritikez, beste hainbat aditu euskaldunen ekarpenez, liburuez, artikuluez, katalogoez. (Lertxundi 2019: 87)

Zubigintza gabeziak, edota hizkuntzen arteko ezagutzaren ahultasunak, eragin zuzena du traumaren ondorengo literatura aztertzeke garaian; esate baterako, zubi eskasiaren isla da gako bilakatu zaigun 'errelato' hitza; Eneko Bidegainek zehazten duen bezala:

Bat-batean, 'errelato' hitza itzulipurdika sartu zaigu. Hitz hori, ordea, ez dugu aurkituko ez Euskaltzaindiaren Hiztegian, ez Orotariko Euskal Hiztegian. Hitz hori ez da euskaraz, espainolezko 'relato'-ren euskaratze trakets bat baizik ez da. Frantsesez 'récit' edo 'histoire', ingelesez 'story' eta euskaraz 'kontakizun' edo 'narrazio' da 'relato'. (Bidegain 2018)

Gurean, traumaren ondorengo testuinguruaz gain, zauri linguistiko bat daukagu esku artean trauma ikertzeko garaian. Beraz, garrantzitsua da hizkuntzari eta kontzeptuei buruzko hausnarketa egitea; hots, traumari buruz ikertu beharko genuke, eta, aldi berean, traumari buruzko hizkuntza aztertu. Horri bigarren geruza bat gehitu beharko genioke: Philip Rothek zioenez, ñabardurak aurkitzea omen zen idazlearen lana, eta politikariena, berriz, ñabardurak ezabatzea. Literaturaren eta politikaren hizkuntzak ez datoz bat, Canok (2018b) itzuli zituen Rothen hitz horiek: «Politika da orokortzailerik handiena. Literatura da ñabarduragile handiena».

Euskaraz ondutako pentsamenduak ez badu islarik beste hizkuntzetan egindako ikerketan, handitu egiten da trauma komodifikatzeko arriskua, preseski, bertako eztabaida kanporatzen denean eta beste hizkuntzetatik gurera itzultzen denean. Hego Amerikan, traumaren ondorengo azterketak zera zuen helburu, isilarazi ziren ahotsak berreskuratzea; hemen, ordea, traumaren ondorengo azterketa-aldi honetan, hizkuntzek ahotsak banatzen dituzte, eta, ez badago hizkuntzen arteko zubi-lanik, ahots batzuk betirako galduko ditugu. Are gehiago, arriskua dago, literatura aztertzean, eduki gisa, gai huts gisa aztertzea trauma, aditzera eman gabe traumak literatura-hizkuntzaren erabilera berezi bat dakarkigula. Horrekin estuki loturik, errusiar formalistengandik ikasi genuen literaturak modu berezi batean erabiltzen duela hizkuntza, horixe da *literaturtasuna* deritzoguna. Horrenbestez, ezin dugu egia-gezurra binomioa ezarri. Berriro ere, horren testigantza dugu Philip Rothen hitzetan (Cano 2018b): «Gezurra derrigorrezkoa da, egia komunikatzea ezinezkoa delako».

Philip Rothen fikzioaren diktumaren gorpuztea den *Fakirraren ahotsa* (2018) eleberrian ere badugu Jacques Derridaren *gehigarria* kontzeptua: testu literariotan ezin da egiaz hitz egin, idazkera gehitzen baita beti. Derrida pentsalariak *gehigarria* deitzen dio gehitzen den horri, idazkerari (Derrida 1992). Derridaren kontzeptu horretaz baliatuz, Coetzee idazle hegoafrikarrak, 1985ean, ‘Confession and Double Thoughts’ argitaratu zuen, aitormenari buruzko saiakera bat, non aitormena ezinezko baita, hizkuntzak berak ez duelako ekintza hori bideratzen;

Gurean, traumaren ondorengo testuinguruaz gain, zauri linguistiko bat daukagu esku artean trauma aztertzeko garaian. Beraz, garrantzitsua da hizkuntzari eta kontzeptuei buruzko hausnarketa egitea

gehigarria den horrek, hizkuntzak, aitormena oztopatzen du, ez baitago gardentasunik.

Hego Afrika kasu esanguratsua da historia eta kontakti-zunaren arteko lotura aztertzeko garaian. Apartheidaren ondoren hasi zen *Truth and Reconciliation Commission* prozesua, 1996an: prozesu horrek, testigantza publikoen bidez, errekontziliazioa bideratzea zuen helburu. Todorovek laburbiltzen duen gisan:

Hego Afrikaren kasua testigantza eta aitopenetan datza. Erreparatzailea eta ez zigor-justizia. [...] Zigor-justiziak lege abstraktuarekiko begirunea eta sostengatzen duen erakundea, azken finen estatua, lehenesten ditu. Justizia erreparatzailearen ardura gizartea osatzen duten pertsona jakinak dira. Dagoeneko bere helburua ez da ordena pertsonala babestea, iraganeko errudunak eta iraganeko biktimaren elkarbizitza bideratzea baizik. (Todorov 2009: 31)

Prozesu horretan, erasotzaileek barkamena eskatu zuten. Derridak, Hego Afrikara egin zuen bidaian, unibertsitateko ekitaldi batean hegoafrikar ikasleei kontra egin eta barkamen hutsaren ideala aipatzen du (Derrida 2009), hau da, helburu politikorik ez duen barkamena. Barkamenari buruz argitaratu zuen saiakeran, barkamen hutsa defendatzen du, humanismotik datorkiguna eta ez erlijiotik (Derrida 2001). Zulaikak, *ETAren hautsa* saiakeran (2006), ñabardura handiz aztertzen du Derridaren barkamen hutsa ezohiko gertakari gisa, zeina baldintza historikoei atxikitzen dion:

Egoera paradoxiko honetan gaude beraz, non errekontziliazioaren premia politikoak biktimen gisako jarrerak justifikatzen dituen, baina, bide batez, honek barkamenaren baldintzagabetasuna baztertu gabe. Gai honen inguruko eztabaidaren pisuak adierazten duen eran, barkamenaren miraria izan daiteke erabakigarria gaur egungo Euskal Herriak bere normalizazio soziala aurki dezan. (Zulaika 2006: 113)

Testuinguru horretan, literaturak Nelly Richard pentsalari frantses-txiletarraren «zeinu pitzatua» irudikatzen du (Arruti 2007). Esate baterako, Hego Afrikan, Coetzee 1999an

argitaraturiko *Disgrace* eleberrian, non kontakizun bateratua ezinezko baita, zeinu pitzatua besterik ez dugu, literaturtasuna ez baita errealitatearen morroi. Giltzarri den beste trauma testuinguru batean, Ipar Irlandan, idazleek antzeko lizentziak hartu dituzte. Azken uztakoen artean, Anne Burns idazleak, *Milkman* eleberrian (zeina 2018an argitaratu baitzen, *Fakirraren ahotsa* bezalaxe), zeinuen ezegonkortasunaz hausnartzen du, eta ez gara liburuak dioenaz fio, gatazkaren zurrumurruren bidez eraiki baitu kontakizuna. Lehenik eta behin, hizkuntzaren erabilera berezi bat da literatura, ez da hizkuntza legala edo historikoa. Idazle onek beti hartuko dituzte lizentziak, literaturaren hizkuntzaren plastikotasunaz baliatuz.

Euskal testuinguruan, Harkaitz Canoren *Fakirraren ahotsa* eleberriak sorrarazi duen eztabaida, sarri, neurri gisa adierazi da; esate baterako, ahots kritiko batzuek esan dute gehiegi desbideratzen dela egiatik, edo objektibo deritzogunetik:

Aukera zezakeen kantari bati buruzko nobela bat egitea, nahiz eta, atzean, Imanolen itzala han-hemenka nabaritu. Gaizki-ulertuak errazago usatzeko modua izango zen. Eta, bide batez, bere digresioei etekin gehiago ateratzekoa. Zentzu horretan, galdutako aukera bat iruditu zait ‘Fakirraren ahotsa’. Esku ezin trebeago batzuen artean diluitutako aukera. Nago Imanolena bezalako bizitza eta garai batek Cercasek ‘Anatomía de un instante’n egin-dakoa eskatzen duela gehiago: egiazkoagoa izatea, benetako datuekin eta benetako izen-abizenekin, kontrajarritako iritziekin... (Gorrotxategi 2019)

Digresioek, diskurtso estetikoek, ‘errealitatea’ deitzen zaiona desegiten dute; antzekoa leporatu zitzaion *Twist* (2011) eleberriari, Joseph Beuys artista alemaniarraren lana aztergai zuenean. Azken nobelari buruzko iruzkinak beste testuinguru batean irakurriko balituzte, galdera bistakoa da: zer eskatzen zaio euskal idazleari? Literaturtasunari uko egitea? Gertakari traumatikoa subjektiboa da funtsean, eta eraginik zuzenena denboraren antolaketan du: denboraren erabilera bereziak, subjektiboak, helarazten du gertaera mingarria. *Fakirraren ahotsa*-n, kontakizunaren denbora narratiboa eten egiten da

Arakisen (Yoyesen bertsio fikzionatua, Cano 2018a: 208-216) heriotza kontatzen denean; *autoreverse*-an esaten den hilketa hori nobelaren giltzarri dugu. *Autoreverse*-ak, alde batetik, ezinezko bukaera zorionsua antzezten du balizko kontakizun batean; bestetik, traumaren errepikakortasuna irudikatzen du, berriz kontatzean memoria mingarriaren eragile den motiboa prentsan agertzen den argazkia da. Imanolek ikusten duen argazkian, traktorearen eta haurraren arteko tamainen arteko aldea da Barthesen punctuma, ukitzen gaituen elementu subjektiboa («Egunkariko argazkiari begiratzen dio Fakirrak, dena bere begien bistan gertatu izan balitz bezala», *ibid.*: 208; «Traktorea handia da eta umea txikia», *ibid.*: 209). Traktore gurpildunak irudikatzen du sorgin gurpil bikoitza: indarkeria astun geldiezinak eraginiko traumaren errepikapena. Canok denbora eta egitura narratiboarekin esperimentatzen du atal horretan; heriotza zeharka kontatzen da, akzioa errebobinatuz, hasierako traktore handiarekin eta haur txikiarekin; testuaren bukaeran, hasiera bihurtzen da amaiera, heriotza bizitza da hemen.

Atala laburra bada ere, txit konplexua da, hiru ikuspuntu narratiboen geruzen tolesdura baita: lehenik, Imanol daukagu prentsa irakurtzen, non argazkiak trauma eragiten baitu; bigarren, hiltzailearen ikuspuntua dator, terrorista-
ren estereotipotik at zalantzak adierazten dituen («Ekintza egin aurretik ez zaizu eztarrian deus sartzen. Hiltzaileak ez du bere burua hiltzailatzat, dena da konplikatuagoa», *ibid.*: 211); eta, azkenik, Arakisen semearen ikuspuntua daukagu. Guztira, hiru subjektu eta bi objektu. Bi objektu diot: bat, ama bizirik, eta bi, semearen begietan bizirik zegoenaren lekua hartu duena («eta bere ama beste norbaitek ordezkatu duen ustearen arteko besarkada ulertu du, unean bertan, umeak», *ibid.*: 212). Yoyesek bere egunerokoetan aipaturiko mamuaren oihartzunak daude haurraren bihotz-begietan:

Bada nire izena daukan mamu bat eta inguruetan dabil; mamu bat, duela urte batzuk hazten hasi zena, ni ezagutu gabe nitaz hitz egiten hasi zirenetik, eta azken sei urteetan bizirik jarraitu

duena, nik hiltzen ari zela uste izan dudan arren. Lagundu diote egunkariek, niri militantzia bat egozten eta istorioak asmatzen segi dutelako; baita bedeinkatzeko edo kondenatzeko mitoak sortzen dituen jendeak ere, beren buruak babestuz edozein galdera edo zalantzatik. (Bereziartua 2016)¹

Joseba Zulaikak *ETAren hautsa* saiakeraren gaztelaniazko edizioari epilogo bat gehitu zion, Madrilgo 2006ko atentatuaren ondoren, 'Regreso y profecía de Yoyes' (2007). Zulaikak euskal gatazkari buruz idatzitako uzta oparotik, *tour de force* kritiko hutsa da kapitulu hori bereziki. Yoyes idazle amorratu gisa aurkezten du, nerabezarotik egunerokoan idatzi zuena, idazketa erabiltzen baitzuen erabakiak hartzeko eta bere bilakaera egiteko tresna gisa. Itzulerari begira, Yoyesek egunerokoan dio bizirik lurperatu zutela, eta, horren harira, Zulaikak Antigonarekin alderatzen du Yoyes:

Paragrafo berean Yoyesek dio «hilobi honetatik, bizirik hobiratzetik atera» behar duela, Antigonaren esamolde bera, Kreonek hobiratu hiltzera kondenatu zuenean esana: «Ai, hilobi! Ai, ene eztei-ohel/ Nire etxea, nire espetxea/ arroka hutsean zulatua». Eta Yoyesek errepikatzen du: «Eta heriotzaren aurkako sekulako borroka da». (Zulaika 2007: 158)

Zulaikak Yoyesen bizitzari egokitzen dio María Zambanok Antigonari buruz idatzi zuena: Yoyes ez dago bizirik, ezta hilik ere. Zambranoren hitzetan:

Berea maitasunaren ametsa izan zen, hots: ezagutzarena, zigorra, bere heriotza, saihestezina aurreikusten eta onartzen duen buru-argitasunarena, bizitza eta heriotza uztartzen diren unean baitatza. Transzendentzia hutsa den instant batean, izakiak bizitza eta heriotza xurgatzen dituen unean, bata bestea bilakatuz. Ehule izan zen, zeinak instant batean ehuntzen dituen bizitzaren eta heriotzaren hariak, erruarenak eta justizia ezezagunarenak, maitasunak soilik egin dezakeena. Hori izan zen bere egitea, beste dena bere antagonistak ematera behartutako arrazoiak; maitasunaren arrazoiak, errukia barne. (Zambrano 2004: 356)²

Eleberrian, Yoyesen pausoak jarraitzen ditu Imanol Larzabalek, eta, modu bertsuan, Zulaikak, Begoña Aretxagaren

saiakeraren bitartez (1988), Yoyesen pausoen gainean idazten du («Aretxagak bere subjektibotasuna arriskuan jartzen du, Yoyesi buruzko esperientziatik abiatuta idazten duenean, eta, hala, bere belaunaldiak ezagututako gertaera eta eraldaketa bortitzen testigantza ematen du», Zulaika 2007: 153). Laurak –Yoyes, Imanol, Aretxaga eta Zulaika– ditugu historiak ezarritako bidegurutzean norabide bakanak hautatu zituzten euskaldunak.

Ondorio gisa: ideologiaren azaleratzea

Ipar Irlandan gatazkari elefantea deitu ohi zaio –ingelesezko «*elephant in the room*» espresioari keinu eginez–, hau da, ikusi nahi ez dugun arazoa, nahiz eta saihestezina den eta hor dagoen une oro, gizartea zamutzen (Arruti 2009). Asier Mendizabal artista garaikideak ‘Elefantea’ artikulua argitaratu

zuen 2008an *Gara* egunkarian (ingelesez argitaratu zen *Fire and/or Smoke* artikuluan bilduman 2016an). Mendizabalen ekarpena oso garrantzitsua da traumaren ikasketetan, ez baitu islatzen traumaren ondorengo gehiegizko memoria eta ahanzturaren arteko dinamika, testuinguru horretan dauden artisten ekoizpenak aztertzean. Mendizabalek, Canoren belaunaldikoa baita, haurra zela bizi izan zuen *Fakirraren ahotsa*-ko denbora narratibo

Traumaren ondoren bere lanik onenak idazten ari diren euskal idazleak susmagarritzat jo beharrean, ideologia azalatu behar da, bere horretan traumaren erabilera politikoaz jabetuz eta horretaz hausnartuz

hori, eta, ordiziarra denez, Yoyes bezala, komunitatean hiletak sorturiko zauriak eragina izan du beragan.

Mendizabalen hitzetan, testuinguru gatazkatsuetan bizi diren sortzaileak beti dira susmagarri, susmoa izanik ez dutela behar den bezala lantzen gatazka. Lehenik eta behin, honek

sorrarazten du susmoa: inguruko errealitatea saihesten duten jolas estetikoak lehenesteak. Traumari buruzko ohiko analisisian, gatazka da elefantea, izendatzen ez dena, hala erabiltzen du Bernard McLaverty idazle iparrirlandarrak. Antzeko esanahia ematen dio Canok, 2010ean irakurritako *Tigre batekin bizi* poeman, gurekin bizi den tigreak: gurekin bizi den indarkeria da, beti hor dagoena gauza guztien azpian, astun eta temati (Cano 2017).

Mendizabalek erabateko jauzia egiten du, korrontearen kontra idatziz; traumari buruzko ikasketetan egin ohi denaren ifrentzua da hark dioena: elefantea ideologia da, hots, benetan boterea dutenek eraikitzen duten mekanismoa. Mendizabalen analisisian, elefantea ez da izendatzen ez dena, zer izendatu behar den erabakitzen duena baizik. Zenbait iruzkinetan, trauma saihesteko mekanismo gisa irakurri dira Canoren *Twist* eta *Fakirraren ahotsa* eleberrietan agertzen diren arteari buruzko osagaiak. Belaunaldi berriak lizentzia handiagoak hartu ditu gatazka irudikatzeko, literaturan Derridaren gehigarriarekin. Idazlea desbideratu dela diotenek susmagarritzat jotzen dute idazlea; errealitate gordina errepresentatzea saihestu ote du? Jolas estetikoak lehenetsi ote du? Susmo hori sustatzen dutenak dira, zinez, garrantzitsua dena erabakitzen dutenak. Horixe da gure elefantea, benetan zer den garrantzitsua zehazten duen mekanismoa. Traumaren ondoren bere lanik onenak idazten ari diren euskal idazleak susmagarritzat jo beharrean, ideologia azaleratu behar da, bere horretan traumaren erabilera politikoaz jabetuz eta horretaz hausnartuz. Todorov, Radstone eta era horretako pentsalarien ekarpenak kontuan hartuz, deontologia profesionala eskura izan behar dugu trauma aztertzeke garaian. Traumaren ondorengo testuinguruan, ezinbestezkoa da trauma ikertzea, idazleak susmagarritzat jo gabe, horiei mekanismo ideologikoak deseraikitzeke askatasuna emanik; eta hori hala gauzatzeko, ikertzaileok traumaren ondorengo testuinguruak etikoki aztertu behar dugu, egungo testuinguruak ezarritako utilitarismorik gabe, akademian eta akademiatik at. 🍷

Oharrak

1. «Hay un fantasma con mi nombre que anda rondando por ahí, un fantasma que se vino gestando desde hace años, desde que empezaron a hablar de mí sin conocerme y que en los últimos seis años ha continuado vivo, aunque yo he tratado o he creído que moría, han contribuido para ello los periódicos que seguían atribuyéndome una militancia e inventando historias; y la gente que crea mitos para bendecir o condenar, salvaguardando cualquier pregunta o cuestionamiento sobre sus propias personas, poniendo en el exterior el objeto (mito) de sus sentimientos, pasiones, etc. En este mito, la persona de carne y hueso que es un sustrato no existe más que como tal sustrato, no es humana» (Garmendia *et al.* 2009: 243-244).
2. «Fue un sueño de amor el suyo, es decir: de conocimiento, de lucidez que ve su condenación inevitable, su propia muerte y la acepta, pues que está situada en el punto del tiempo en que vida y muerte se conjugan. En un instante de pura transcendencia en el que el ser absorbe en sí vida y muerte, transmutando la una en la otra. Fue la tejedora que en un instante une los hilos de la vida y de la muerte, los de la culpa y los de la desconocida justicia, lo que sólo el amor puede hacer. Fue esta su acción, el resto son las razones que su antagonista le obliga a dar; razones de amor que incluyen la piedad».

Bibliografía

- Aretxaga, B. (1988): 'The Death of Yoyes: Cultural Discourses of Gender and Politics in the Basque Country', *Critical Matrix* 1, 1-10.
- Arruti, N. (2007): 'Trauma, Therapy and Representation: Theory and Critical Reflection', *Paragraph* 30(1), 1-8.
- (2009): 'On the Lightness of Being: The Conflict of Belonging in Basque Literature', in M. J. Olaziregi (arg.): *Writers-in-Between Languages: Minority Literatures in the Global Scene*, Reno, University of Nevada Reno, 115-130.
- Barthes, R. (1993): *Camera Lucida*, Londres, Vintage Books.
- Bereziartua, G. (2016): 'Yoyes. Mitoak estalitako jardun intelektuala', *Argia*, 2016-09-11 (www.argia.eus/argia-astekaria/2520/yoyes).
- Bidegain, E. (2018): 'Zer da 'errelatoa'?', *Gureberriak*, 2018-08-08 (www.gureberriak.com/2018/08/08/eneko-bidegain-zer-da-errelatoa).
- Burns, A. (2018): *Milkman*, Londres, Faber & Faber.
- Cano, H. (2011): *Twist*, Zarautz, Susa.
- (2017): 'Tigre batekin bizi', *Words without Borders* (www.wordswithoutborders.org/article/bilingual/may-2017-basque-poetry-life-with-a-tiger-harkaitz-cano-amaia-gabantxo).

- (2018a): *Fakirraren ahotsa*, Zarautz, Susa.
- (2018b): 'Alfabeto bat boxeorako', *Berria*, 2018-05-24 (www.berria.es/paperekoa/1901/027/001/2018-05-24/alfabeto_bat_boxeorako.htm).
- Caruth, C. (1996): *Unclaimed Experience. Trauma, Narrative and History*, Baltimore, The Johns Hopkins University Press.
- Coetzee, J. M. (1985): 'Confession and Double Thoughts: Tolstoy, Rousseau, Dostoevsky', *Comparative Literature* 37(3), 193-232.
- (2000): *Disgrace*, Londres, Vintage.
- Croft, J. (2019): 'Repercussions from a Political Murder Play Out in a Spanish Village', *The New York Times*, 2019-05-02 (www.nytimes.com/2019/05/02/books/review/fernando-aramburu-homeland.html).
- Derrida, J. (1992): *Acts of Literature*, New York eta Londres, Routledge.
- (2001): *On Cosmopolitanism and Forgiveness*, New York eta Londres, Routledge.
- (2009): 'On Forgiveness' (www.youtube.com/watch?v=qDrU1jtt_fl).
- Donostia 2016 (2016): '(E)zinezko elkarrizketak: Ramon Saizarbitoria & Fernando Aramburu' (www.youtube.com/watch?v=3j3SrWTVz3I).
- Egaña, I. (2019): 'Heridas que hablan: sujeto, género y trauma en la narrativa vasca', *Journal of Catalan Studies* 21(1) (<http://jocs.anglo-catalan.org/ojsnew/index.php/jocs/issue/view/4>).
- Finkelstein, N. (2000): *The Holocaust Industry. Reflections on the Exploitation of Jewish Suffering*, Londres, Verso.
- Garmendia, E. et al. (2009): *Yoyes. Desde su ventana*, Irun, Alberdania.
- Gorrotxategi, A. (2019): 'Fakirraren ahotsa', *El Correo*, 2019-02-16 (<https://kritikak.armiarma.es/?p=7653>).
- Lertxundi, A. (2019): 'Borrokarako armak', in *Itzuliz usu begiak*, Irun, Alberdania, 82-87.
- Mendizabal, A. (2016): *Fire and/or Smoke*, Kolonia, Walter Koenig.
- Radstone, S. (2007): 'Trauma Theory: Contexts, Politics, Ethics', *Paragraph* 30(1), 9-29.
- Sofokles (1969): *Antígona. Edipo Rey. Electra*, Madril, Guadarrama.
- Todorov, T. (2008): *Los abusos de la memoria*, Bartzelona, Paidós.
- (2009): *La memoria, ¿un remedio contra el mal?*, Bartzelona, Arcadia.
- Yanke, R. (2019): 'Un día en el rodaje de *Patria*: las heridas de ETA según HBO', *El Mundo*, 2019-04-25 (www.elmundo.es/papel/cultura/2019/04/25/5cc094d9fdddfbe7f8b46c4.html).
- Zambrano, M. (2004): 'El personaje autor: Antígona', in *La razón en la sombra*, Madril, Siruela, 355-360.
- Zulaika, J. (2006): *ETAren hautsa*, Irun, Alberdania.
- (2007): 'Epílogo: regreso y profecía de Yoyes', in *Polvo de ETA*, Irun, Alberdania, 147-189.

Zoparen Teoria Orokorra

Identitatearen atarietan

Gaizka Aranguren Urrotz

*Ondare Immaterialaren kudeaketan doktorea,
Informazio Zientzietan lizentziaduna eta Europar
Integrazioan diplomatua*

Pantailak dira, gaur, difusio bide gorenak.¹ Bere garaian idatzizkora jauzi egitearen garrantzi berbera du, egun, pantailatan egoteak edozein hizkuntzarantz, edozein giza komunitateren iruditeria osatzen duten elementuentzat.

Iruditeria kolektibo dinamikoa identitatearen sortzaile nagusia da. Berori osatzen duten erreferenteak pantailen bitartez transmititzean datza gure herri existentzia bermatzen duten hizkuntza eta kulturaren biziraupenaren gakoa.

2003ko Parisko Kultura Ondare Immaterialaren Babeserako Itunak marko eta kontzeptualizazio gaurkotua eskaini dizkie xx. mendean folkloreak zein etnografiaren esparruetan ondutako hausnarketei eta ekimenei.

Hortaz, zein da lekuan lekuko eta esparruan esparruko iruditeria kolektiboak osatzen dituzten elementu eta erreferente horiek ongarritzea eta ureztatzea xede duen egituraren jarduna? Belaunaldiz belaunaldiko transmisio zaurituaren zereginaren ordezkari lana; hau da, kultura ondare immaterialaren ageripide kolektiboaren zein memoriaren transmisioa

bermatuko duten bilketa eta hedatze sistematikoari ekitea ikus-entzunezko formatuan.

Horrek, praktikan, jardunbide hauei ekitea dakar:

- Eramaileen eta gizartearen arteko bitartekaritza lana.
- Administrazioendako zein pribatuendako aholkularitza lana ondare immaterialaren kudeaketan.
- Lekuan lekuko paisaia naturalaren zein paisaia kulturalaren emaitza diren produktu eta zerbitzuen balio erantsia sustatuko duen proiektio komunikatiboa lantzea, ikuspegi antropologikoa gehituz.

Labrit (www.labrit.net) 2009. urtean sortu genuen. Memoriaren bilketa eta transmisioan zein ondare immaterialaren esparruan jarduteko enpresa egitura da. Diziiplina anitzeko hamabi lankidez osatutako lan talde horrek ikuspegi antropologikoa du ardatz. Hamabi urte hauetan egindako lanetan birbaieztatutako estrategiari buruzko hausnarketa da datozen orrialdeetan eskainiko duguna. Izan ere, jarduerak berak erakutsi baitigu zer lan ildo diren eraginkorrenak eremu geografikoen arabera zein jakintza esparru identifikagarrien araberako ekimenetan.

Ezin ahanzi dugu, bertzalde, egun, oraindik ere, ondare immaterialaren alorrean adituak diren pertsona gutxi daudela egitura administratiboetan. Unescoren 2003ko Kultura Ondare Immaterialaren Babeserako Itunak zeregin zehatzak eskatzen baditu ere (inbentarioak eta babes estrategiak), egitura instituzional bakarra sortu dute Euskal Herriko instituzio desberdinek: Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuan, Museoen Zerbitzuen baitan, Ondare Etnologiko eta Immaterialerako Negoziatua.

Sozialazioa, nazio estatua, hizkuntza eta memoria partekatua

Pertsonok identitate-talde anitzekiko atxikimendu maila desberdina daukagu. Atxikimendu horiek, normalean,

sozializazio prozesuan finkatu dira. Talde horietako bakoitzaren erreferentzia sistema osatzen duten elementuak barneratu ahala, taldearekiko atxikimendua gorpuzten, sendotzen edo ahultzen joan da. Barneratze prozesu hori, noski, emozioek baldintzatu dute.

Postmodernitateak, bereziki nazio estatuaren egonkortze eta sendotzearen bitartez, sozializazio prozesuetan modernitateak finkatutako joera gehienak indartu ditu:

- Lurralde jakin batekiko atxikimendua; bere natura eta kultura paisaiarekikoa, alegia; egituraketa administratibo-instituzionalek baldintzatutako erreferentzia-sistema, azken finean.
- Hezkuntza sistemak azpimarratzen dituen iraganeko us-tezko erreferentzia partekatuen azpimarra eta horien etengabeko birsortzea.
- Etorkizun partekatu idiliko posiblearen ametsarekiko atxikimendua (dagoeneko partekatzen diren bertzelako elementuetan jatorria duen pegamenturik itsaskorrena).

Postmodernitatearekin batera, gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek bertzelako atxikimenduetarako bideak ireki dituzte. Hainbat kultura eta identitate erreferentzia unibertsalizatu dituzte hegemonikoak bihurtu diren transmisio bitartekarien laguntzaz: pantailei esker, hain zuzen ere.

Nolanahi ere, hizkuntza izanik (ama hizkuntza gehienetan) edozein talde identitarioren iruditeriaren erreferentzia nagusien arteko sinapsigilea, salbuespenak salbuespen, hizkuntza izanen da gizatalde ororen kosmogoniaren osagai diren elementuen antolatzaile/bahe nagusia.

Nazio estatua

Nazio estatuak eta bere kudeatzaileek ongi aski dakite talde-identitatea sendotzen duten imajinarioaren elementuak elikatuz indartzen dutela bere egitura instituzionala. Horien

bitartez sustatzen da administrazio horrek irudikatzen duen identitate politikoarekiko atxikimendua.

Hizkuntza hegemonikoa, hezkuntza sistema eta komunikazio eremuaren kontrola dira nazio estatuaren bitartekorik eraginkorrenak zeregin horretan.

Modernitatearen hasieratik, inprentaren laguntzaz, idatzizko transmisioaren kontrolak bermatu du, hein handi batean,

identitate politikoaren modelatzea eta sustatzea. Ahozko transmisioaren zokoa, gero eta baztertuago eta duintasun gutxiagorekin geratuz joan dira nazio estatu inposatuak hegemonikotzat aukeratu ez dituen hizkuntzak eta kulturak. Idatzizkoaren inperioa gain behera dator, ordea.

Ahokotasunak aukera berriak ditu gaur ikus-entzunezkoaren magalean. Ikus-entzunezko horiek, transmisioa bermatzeko, hedatu behar dira pantailen erresuma berrian, informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten gaitasunak egoki profitatu nahi baditugu, bederen.

Iraganeko mugarri partekatuak, pasarte historiko gogoratuak eta, bereziki, iraganeko mugarri ospatuak barne kohesiorako imajinario kolektiboaren elementu baliatuenetakoak dira

Eremu komunikatiboa

Aipamen berezia merezi du eremu komunikatiboak hausnarketa honetan. Izan ere, eta Interneten garaian komunikazioaren demokratizazioaren ilusioak errealitatea lausotu dezakeen arren, nabarmena da nazio estatuaren egituraketa administratiboak baldintzatzen duela nagusiki identitate politikoaren atarira garamatzen iruditeriaren osaketa.

Komunikatzeko eskubidea nazio estatutika antolatuta dagoelako adierazlerik garbiena gainean daukagun 5Gren frekuentzia-banda lizentzien salmenta politika da. 5G izanik

gauzen Internet bulgarizatuko duen teknologia, ez da harritzekoa, erraterako, Estatu Batuetako administrazioak jatorri txinatarreko 5G teknologiaren kontrolari ezarri nahi izan dion galga.

Pantailen inperioan 5Gren kontrolari eusteak berebiziko garrantzia izanen du transmisio masiboaren korrontean. Irudite-riaren erreferentzien hedatze zereginetan aukeraren bat izateko zirrikituak bilatu beharko dituzte horren gaineko kontrolik izanen ez duten nazio estaturik gabeko hizkuntzek/kulturek.

Ahaztu ezineko errealitatea hau da: gaur, askoz denbora gehiago ematen dute belaunaldi berriek pantailai so gurasoen edo lagunen aurpegiei begira baino.

Memoria partekatua, jarduera partekatua

Ustezko iragan loriatsuaren azpimarra eraginkorra al da edozein gizatalderen kohesioa lortzeko bidean? Eta iraganeko sufrimendu partekatuak ez al dira mugarri historiko epikoenak bezain indartsuak? Zer da iragana, partekatutako memoria baizik?

Iraganeko mugarri partekatuak, pasarte historiko gogoratuak eta, bereziki, iraganeko mugarri ospatuak barne kohe-siorako imajinario kolektiboaren elementu baliatuenetakoak dira. Identitate politikoaren hautuari buruzko edozein ezta-baidatan berehalakoan mahaigaineratu ohi diren erreferen-tziak dira iragan partekatuarenak. Baldin eta izan bazen, orain edo etorkizunean zilegi dela ondorioztatzen du jende anitzek.

Alta, benetan inportantea dena ez da iragana hala izan ote zen ala ez. Inportantea ez da iragana, haren gomuta parte-katua baizik, eta, are gehiago, iraganeko oroimen partekatua elkarrekin ospatzea edo gogora ekartzea. Iraganeko mugarri partekatu eta erritualizatuen eragina pertsonon identitate hautuetan, beraz, handia da. Interes ekonomikoen edota etorkizuneko egitasmo partekatuen eraginkortasun mailan daude.

Izan ere, elkarrekin egiten dugunak egiten gaitu *gu*, bertze ezerk baino gehiago.

Ildo horretatik, pantailei so egitea baldin bada gehien egiten duguna, eta pantailen bitartez partekatzen ditugun elementuak, behin eta berriro, iturburu bertsuetatik ezaugarri bertsuekin ateratzen badira, aniztasunerako tartea gero eta mugatuagoa izanen da.

Belaunaldien arteko ahozko transmisioa inoiz ez bezalako etena jasaten ari da, bertzeak bertze, familia hedatuaren ondoko familia nuklearraren etengabeko murrizteak eraginda, bai eta pantailei esker zeharkako transmisioaren hegemonia ikus-entzunezkoen esku utzi izanagatik ere.

Lekuan lekuko ondare immateriala ikus-entzunezko formatuan bildu eta transmititzeko jarduera sistematizaturik gabe, nekez eutsi ahal izanen diegu kultura aniztasunaren berme diren iruditeria desberdinen erreferentziei.

Azpinarra egin nahi dugu: imajinario kolektiboen erreferente garrantzitsuenak, kohesionatzaileenak, ez dira zaharrenak, ez dira ikusgarrienak edo epikoenak, ez eta ustez singularrenak direnak ere. Elementu atxikitzaileenak, partekatu-

tuenak, birsortuenak, partizipatuenak eta elkarrekin ospatuenak dira (Apodaka 2015).

Elementuok gizabanakoaren sozializazio prozesuan zehar kontraesankorrak izan daitezkeen indar emozional desberdinez barneratu dira. Hein batean bakarrik kontzientea den barneratze prozesuaren fruitu. Batzuetan hausnartuta eta gehienetan hausnartu gabe irentsitako esanahien adierazle partekatuen multzoa.

Herri memoria eta ondare immateriala transmisiorako

Lekuan lekuko
ondare immateriala
ikus-entzunezko
formatuan bildu eta
transmititzeko jarduera
sistematizaturik
gabe, nekez eutsi
ahal izanen diegu
kultura aniztasunaren
berme diren iruditeria
desberdinen erreferentziei

bidean jartzea iruditeria kolektiboen mundu sisteman parte hartzea da. Kulturen ekosisteman ekarpena egitea. Zoparen produkzioari eustea, alegia.

Zoparen Teoria Orokorra

Jarraian garatuko dugun metafora gastronomiko honek gaur egungo kulturen arteko harreman sistemaren zurrunbiloaren irudikapena eskaintzen digu. Kultura eta hizkuntza aniztasuna arriskuan jartzen duen globalizazioak sustatutako homogeneizazio eta estandarizazioa agerian uzten duen deskribapena.

Ildo honetatik, adierazgarria da oso André Schiffrin editore franko-estatubatuarrek zoparen ikonoa bera erabili izana ideia bertsua adierazteko: «Koloretako arrainez betetako arrainontzi batekin arrain-zopa egin daiteke. Alderantzizkoa egitea zailagoa da» (Esparza 2018: 170).

Osagaiak

Gizatalde orok bere zopa propioa ekoizten du. Munduko gastronomiari egiten dion ekarpena da.

Ura hizkuntza da. Osagai desberdinak harremanetan jartzen dituen ardatza. Ez da egia urak gusturik ez duenik. Urak bere zaporea du, baita kolorea ere. Giza komunitate bakoitzaren ura bere kosmogoniaren adierazpen komunikatiboa da.

Zopa osatzen duten gainontzeko osagaiak lurralde horren natura eta kultura paisaiaren fruitu dira. Klima, geologia, orografia, landaredi eta aniztasun biologikoaren zein giza presentzia eta jardueraren emaitza den natura eta kultura paisaiatz ari gara. Gizatalde horrek partekatzen duen imajinario kolektiboa osatzen duten kultura elementuak ere zoparen osagai dinamikoak dira.

Eltzeak eta bere tamainak gizatalde horren ekoizpen gaitasuna adierazten dute. Gero eta eltze handiagoa, orduan eta zopa gehiago ekoizteko gaitasun handiagoa.

Sua transmisio gaitasuna da. Gero eta sugar indartsuagoak, orduan eta difusiorako gaitasun handiagoa izanen du komunitateak. Kultura horrek, bere zoparen lurrina hedatuz, munduko kulturen kontzertuan parte hartuko du.

Estalkia, azkenik, eltze guztiek ukan ez daukaten elementua da. Su gaitasunarekin elkarlanean, gure zopak unibertso gastronomikoan dauden gainontzeko saldekin izanen duen harremana kontrolatuko du estalkiak.

Aipatu osagaiak, sukaldaritza tresnek, sua kontrolatzeko gaitasunak eta salda bera nahasteko ohiturek eginen dute zopa den bezalako.

Egosten

Zopak gizataldearen idiosinkrasia, izaera, adierazten du. Taldearen ondasun material eta immaterialen adierazpidea da, bere bizitza kulturalaren ekarpena munduari.

Ezin ahanzi dugu bizitza kultural horrek, bidean, bere natura edo kultura paisaiatik atera ez diren elementuak barne biltzen dituela, baina bertako interpretazioek bahetuta. Zopa, erran bezala, berori ekoizten duen giza komunitatea bera bezain bizia eta dinamikoa da, etengabeko bilakaeran bizi baita iraun nahi badu.

Osagai desberdinen arteko ekarpenak nahasteko ezinbertzekoa den urak ahalbidetzen du zoparen gustua. Gerta daiteke, une jakin batean, zopa egosteko darabilen ura aldaraztea gizatalde bati. Eltzea edo egosteko tresna gehienei eusten utzi diote, baita zoparen bertzelako osagai anitzei ere, baina ura aldarazi diote auzoko zopagileek. Kasu horretan, zoparen zaporeak auzoko zoparen antz handia hartuko du, eta, maiz, nekez desberdindu ahal izanen da ekarpena.

Ekotzikotziko diren zopa litroen kopurua eltzearen neurriek baldintzatuko dute. Gizatalde bakoitzaren neurriak berak eta erabilgarri dituen era guztietako baliabideak erabakigarriak dira, noski. Badira eltze ikaragarri handiak eta eltze oso txikiak. Ukaezina da bilakaera historikoek eragin dezaketela

eltzeen neurrian eta, ondorioz, zopa produkzioaren gaitasunean. Argi dagoena da, salbuespenak salbuespen, eltzearen tamainaren eta sugarren indarraren arteko proportzioak parekatuta egon ohi direla.

Munduan, eltze ikaragarri handiak zopa kantitate itzela ekoizten ari dira etengabe, eta horien suaren indarrez lurrin ikaragarria igortzen dute atmosferara, barreia dadin. Badira, bertzalde, gero eta zopa gutxiago egiten duten lapikotxoak, nekez berma dezaketenak zopagintzan dabilen giza komunitatearen iruditeriaren beraren biziraupena. Azken horien lurrinaren ekarpena oharkabean galdu ohi da.

Hortaz, sua berebiziko garrantzia duen eragilea da. Hari esker irakiten du zopak eta, ondorioz, osagaien arteko truke kimikoak gertatzen dira eltze barruan (gogoan izan koloretako arrainez osatutako arrainontziaren metafora). Bertzetik, su horren indarrak baldintzatzen du zopa-lurrin produkzioa. Su gaitasun handienak dauka lurrin produkzio handiena. Su txikia duen eltze handiak ekarpen eskasa egiten du. Eltze txikiek, ordea, ez dute su handirik edukitzeko aukerarik, normalean.

Eltze guztietako zopa-lurrinen arteko harremana gertatzen da hodeietan. Han, goian, lurrina kondentsatzen delarik, zopa nabar bat sortzen da, non lurrin kopuruaren eraginak zaporea baldintzatuko duen.

Kondentsazioaren ondorioz, euria ari du. Ur tantak eten gabeko produkzioan diharduten eltzeetan erortzen dira, eta, horrela, zopen arteko harremana gauzatzen da, horien bila-kaera dinamikoa eta biziraupena ahalbidetuz.

Hemen azaltzen zaigu prozesu honetan guztian, bereziki modernitatean nazio estatuaren egituratzearekin batera eta

Zopak gizataldearen idiosinkrasia, izaera, adierazten du. Taldearen ondasun material eta immaterialen adierazpidea da, bere bizitza kulturalaren ekarpena munduari

absolutuki uneotan, berebiziko eragina duen bertze elementu bat: estalkia. Eltze guztiek ez dute estalkirik. Estalkia duten eltzeek erortzen zaien euri tanten kopurua, hein batean bederen, kontrola dezakete; estalkirik ez daukatenei eroriko den euri gutzia sartuko zaie lapikoan. Estalkia edukitzea, gaur egun, zopa txikien biziraupenerako gako bihurtu da.

Estalkiaren zeregina ez da eltzea etengabe estaltzea. Horrek galbidean jarriko luke zopa bera, ez bailuke ekarpenik eginen eta inolako trukerik izanen gainontzeko zopekin. Fosilizatuko litzateke. Estalkia izatea, nazio estatu propioa izatea, norbere zoparen izaerari eusteko baliabidea da post-modernitatean. Auzoko eltze handien produkzio eta hedatze gaitasun itzelaren euria ekiditea, hein batean bederen, bertzelakotze fenomenoaren eman ez dadin.

Azken finean, eltze handienek hodeietatik erortzen den euriaren konposizioa hainbertze baldintza dezakete, ezen ur jasa itzelek estalkirik gabeko eltzeen ezaugarriak deusezta baititzakete oso epe laburrean, zopa desagerraraziz. Horrek, halaber, munduko zopa aniztasunaren kontrako dinamikan barneratzen gaitu.

Azken 500 urteko Europa horren lekuko garbia izan da. Bortizkeriak eta estrategia militarrek kultura batzuk hil eta hizkuntza hegemonikoak ezarri zituzten. Amerika ere horren guztiaren agerpide garbia da. Konkista militarrek eta kolonizazio kulturalak hainbat eta hainbat kultura desagerrarazi dituzte azken 500 urteotan Ameriketara europar inperialismoaren eskutik. Lan horri eutsi diote gerora osatutako Ameriketako nazio estatu modernoek.

***Soft Power*-a eta kultura immaterialaren kudeaketa**

McDonaldsetik ekarri zizkieten hanburgesak lagun, simpsondarrekin afaldu zuten egongelan.

Orain arte aipatu dugun horrek guztiak harreman zuzena du zenbait egilek *Soft Power* gisa izendatu duten fenomenoarekin. Bereziki adierazgarria da zientzia politikoaren alorreko

ikertzaileek ondarea eta zehazki ondare immateriala aintzat hartu izana nazioarteko harremanetan daukan eraginkortasunagatik (Christofoletti 2017). Nazio estatuen botere bigunaz ari gara, baina baita gaurko transnasionalek darabilten botere bigunaz ere.

Soft Power-ik handiena dutenak dira (eltzerik handiena sugar handienekin), hain zuzen ere, mundu mailako iruditerietan gehien eragiten dutenak.

Nazio estatu bat gai denean bere bandera edo armarrria duen tixerta edo bisera saltzeko munduko bertze puntan edota bere auzokoak diren herrialdeen merkatuetan, *Soft Power* handia duela erakusten du. Egia da gehienetan botere bigun hori harremanetan dagoela botere gogor (militar, ekonomiko) indartsu batekin. Nolanahi ere, argi dagoena zera da: *Soft Power* handiko nazio estatuen eragina bereziki adierazgarria dela nazioarteko harremanen esparruan.

Berriro ere, iruditeria kolektiboa, pantailak, erreferenteak, markak, edukiak, sorkuntza, difusioa eta transmisioa koktel berean agertzen zaizkigu.

Globalizazioa eta imajinarioak

Kosmopaletismoa da globalizazioan ondutako gaixotasun kroniko nagusia.

«Kanala kontrolatzen duenak mezua kontrolpean dauka». McLuhanen esaldia, Interneten hedatzearekin inork herdoildutzat eman bazuen ere, indarrean dago. Inork pentsatu bazuen ere sarea informazio eta komunikazio bideen kontrola eta harresiak haustera zetorrela, honezkero ohartuko zen tronpatuta zegoela.

Inork uste bazuen arrainek Internetekin Reutersen, Disneyren, Metroren, Sonyren edo CNNren sareei izkin egiten zietela, dagoeneko ohartuko zen Google-Youtube, Facebook-Whatsapp edo Netflixen arrasteko sareetan ktramilatuta gaudela, lehenago aipatu dugun 5Gren sehaskan erori bitartean.

Josu Amezagaren hausnarketa honek argitzen du agertokia:

Gaur egun munduko kultur eragile handiena Google da eta, agian, bigarrena Youtube. Eta horiek ez dute kulturarik produzitzen. Horiek egiten dute banatu. Modu engainoso batean. Kanalak dira, eta kanal horretan nik nirea kokatzen dut, eta orduan neutralak dira. Ez. [...] Are gehiago, kanal horiek, kultur eragile nagusiak, ari dira aliantzak egiten produktore nagusiekin. Orduan, aliantza ikaragarria da. Hori da euskal kulturak eta gainontzeko kultura guzतिक daukaten arazo larriena gaur egun. [...] Nire ustez indarra jarri behar dugu gaur egun transmisioan eta zabalkundean, eta ez sorkuntzan. (Amezaga 2016)

Hau da, zopa litro kopurua baino gehiago, sua da azkartu behar duguna. Pantailen konkistara atera behar dugu, gure zopak ahal bezainbertze leku eta denbora har dezan belau-naldi gazteen kontsumoan.

Modernitatearen
hasieratik idatzizkoak
bere gain hartu zituen
ardurak eskuratu
dituzte pantailak
postmodernitatean.
Pantailak dira transmisio
bitarteko hegemonikoa.
Pantailalara iritsiko
ez den kultura edo
hizkuntza galduko da

Google eta Youtube bezala-koen oligopolioak (OTT plataformen gaitasunarekin batera) adierazten duena da eltze handienen lurrinaren hedatze gaitasunak eduki globalizatuaren estandarizazio eta homogeneizaziora garamatzala. Izan ere, kontsumo globalizatu horrek imaginario komun baten gero eta elementu gehiagoren partekatze unibertsala bermatzen du. *Fast food of the global contents.*

Edukien globalizazio estandarizatuak kultura aniztasuna, zopa aniztasuna, murrizten du.

Hirietako etorbide nagusietan errepikatzen diren nazioarteko arropa denda frankiziatuen modura, iruditeria bakar, homogeneo eta estandarera garamatza. Munduko edozein pertsona munduko edozein txokotan 'etxean' bezala senti dadin. Starbucks sindromea.

Errotiko jarrera sozial eraldatzaile orok barneratuta dauka iruditerien garrantzia: «Gure memoria kolektiboaren erreproduktzioa zeregin inportantea da. Gure bizitzari zentzua ematen dioten sinbolo kulturalen erreproduktzioa, gure bozrorokak elikatzen dituzten ikurrak» (Federici 2018: 35).

Anartean, bada uste duenik kezka hauek zentzurik ez daukatela. Horien erranetan, bizitzaren ibilbide nagusia inolako iruditeriaren meneko ez den sexurik gabeko entitateak kudeatzen du: «XXI. mendean, nazioa da osasun sistema publikoa, gizarte segurantzaren sistema eta hezkuntza sistema publikoa partekatzen duen komunitatea, guztion eskubiak bermatzeko komunean finantzatuta» (@Miguel_Izu, 2019-05-05).²

Pantailak, inperio berria

Arestian erran bezala, modernitatearen hasieratik idatzizkoak bere gain hartu zituen ardurak eskuratu dituzte pantailak postmodernitatean. Pantailak dira transmisio bitarteko hegemonikoa. Zoparen lurrina heda dadin irakinaldia ahalbidetzen duten sugarrak. Pantailatar iritsiko ez den kultura edo hizkuntza galduko da, irakiten ez duen zopak bere ekarpena egiten ez duen bezala.

Google-Youtuberen garaian, beti bezala, gehien partekatzen diren edukiak jaso nahi ditugu. Jakin-mina ase baino, komentatu ahal duguna ikusi eta entzun nahi dugu. Hortaz, orokortasun gero eta zabalago batekin partekatzerik ez dagoena baztertu eta eduki estandarizatuenen iturrietara jotzen dugu zopa bila.

Modernitatearekin, idatzizko estatusa lortzen ez zuten hizkuntzen etorkizunak beltzera egin zuen, transmititzeko gaitasunik gabekotzat jo eta bigarren edo hirugarren mailakotzat hartzen zirelako. Gaur, berriro gertatzen ari da. Orain iraultza digitala da gauditiko beharrek harresia, pantailatarako bidea, sareetan egotea. Informatikaren oinarriko erabiltzaile gaitasunak eskuratuko dituen gizabanakoen modura, pantailatan

eta sarean egonen ez den hizkuntza edo kultura ez da aintzat hartua izanen.

Ildo horretatik, azpimarratu beharrean gaude fikzioak daukan garrantzia biziraun nahi duten imajinarioen eduki sortuntzaren alorrean.

Biziraupena ahozko transmisioaren korrontearen eskuetan uzten zuten iruditeria kolektibo haiek edukien belaunaldiz belaunaldiko transmisio etengabekoaren meneko ziren. Fikzioa, orduan, ahozko literaturan oinarritzen zen. Haren bitartez, legenda, ipuin, bertso zein abestien bitartez hainbat balio eta oinarritzko jarrera eta jokaera transmititzen ziren. Gaur, pantailek ahozko literatura haren bertsio gaurkotuaren beharra daukate xede berari eusteko.

Munduko zopen ekosistemari bere ekarpena egin eta bere komunitatearentzat zopa aski ekoizteko gai izanen ez diren imajinario kolektiboak, hizkuntzak, kulturak galbidean dira. Era berean, zopa anitz ekoizteko gaitasuna izaki, berori transmititzeko su aski ez duten komunitateak, guttienez, purgatorio bidean dira.

Azken hilabeteotan OTT plataforma desberdinek (Netflix, Disney) euskara aintzat har dezaten abiatu diren ekimenak edota EITBk berak hartu duen OTT plataforma osatzeko erabakia zentzu horretan doaz, zorionez. Ez dakiguna da garaiz iritsiko diren, edota su gaitasun askirekin datozen. Erregaiaren araberakoa izanen da, ziurrenik, zopa-lurrina sortzeko gaitasun maila.

Euskal Herritik

Sentitu, pentsatu, ekin.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Euskal herria gai izan da, hein batean bederen, bere iruditeriaren elementu batzuei eusteko, belaunaldiz belaunaldi, mendeetan zehar ahozko transmisioaren bitartez. Hizkuntza bera, zopa horren elementuen arteko sinapsi lana dagien ura da adibiderik adierazgarriena. Eltze horrek dinamismo

aski izan du, garai desberdinetara egokituz, barruan erortzen zitzaion euria integratuz, nolabaiteko jarraitutasuna bermatzeko.

Euskal kulturak ez du modernitatean izan estalki lana egiten zion nazio estaturik, eta oso zaila egin zaio idatzizko inperioaren korrontera igotzea.

Beharbada horregatik garatu dugu euskaldunok ahozkotansunean oinarritutako transmisioarekiko horrenbertzeko sentsibilitatea. Eta immaterialtasuna kudeatzea iruditeriaren erreferentziak kudeatzea izanik, beharbada horregatik eutsi diogu, nola edo hala, gure zoparen ekoizpenari.

Orain arte azaldu dugun guztiak, noski, ondarea osatzen duten elementuen kudeaketarekin harreman zuzena du. Izan ere, ondare immaterialaren kudeaketaren bitartez, lekuan lekuko iruditeria sendotu, elikatu edota birsortu dezakegu.

Ondare materiala bera, immaterialtasunak eskaintzen dion interpretaziorik gabe edo kontestualizaziorik gabe, mutu gelditzen da. Kultura jakin bat ordezkatu nahi duen bertze kultura batek ezinen du ondasun material baten indar identitarioa deuseztatu agerpike materiala deuseztatuz bakarrik. Izan ere, desagerrarazitako ondasun materialaren dimentsio immateriala lurperatu ezean, ondasunak berak utzitako hutsuneak hartuko luke giza komunitate horrendako ondasunaren beraren erranahia.

Kulturaren transmisioa saihesteko biderik eraginkorrena genozidioa da (etnozidioa). Linguizidioa izaten da bide horretan lehen urratsa edo bigarren biderik eraginkorrena. Hortik aitzina, giza kolektibo menderatuaren iruditeriaren ezabaketa.

Munduko zopen ekosistemari bere ekarpena egin eta bere komunitatearentzat zopa aski ekoizteko gai izanen ez diren imajinario kolektiboak, hizkuntzak, kulturak galbidean dira

Gaur egun, mundu mailako iruditeria estandarizatuaren merkatua osatze bidean, transmisioaren kanalak kontrolatzeko gaitasuna duten eltze erraldoiak dauden honetan, nazio estatuen marko komunikatiboaz gain, transnazionalen iruditeriaren inperioa dugu zelatan. Bi maila dira eta biek su gaitasun erraldoia daukate.

Aplikazioa. Jardunbideak

Orain arte errandakoaren ildotik, ekimen orok, lekuan lekuko imajinarioen biziraupenaren aldeko joerek blaituta, mundu mailako kultura aniztasunaren aldeko jokaeren korrontean bidaiatu behar du:

- Iraganeko erreferente komunek, bizipenek, ezagutzek eta etorkizunerako desio partekatuek osatzen dute edozein gizatalderen iruditeria. Identitatearen ataria.
- Taldearen izaeraren beraren iruditeria dinamikoa deskodetuz, aztertuz, sailkatuz eta transmitituz, munduko kultur aniztasunaren biziraupena sendotzen dugu eta iraunkorki hauspotzen lekuan lekuko garapena, ingurumenarekin bat.

Hori da ondare immateriala kudeatzea, eta hortik erator daitezke kulturaren transmisio dinamika parte hartzaileetan aintzat hartu beharreko printzipioak.

Oinarri horiekin, ondare immateriala kudea daiteke lekuan lekuko garapen jasangarriaren mesedetan; ekonomia produktiboaren mesedetan; kultura eta identitate turismoaren mesedetan; natura eta kultura paisaia jakin baten fruitu diren produktu eta zerbitzuen mesedetan, horien balio erantsiaren mesedetan proiektzio komunikatibo eraginkorra garatuz.

Galdera da: egitura pribatu bat eraginkorra izan daiteke ondare immaterialaren alorreko bitartekaritzan, aholkularitzan, bilketa, katalogazio eta transmisioan zein aplikabideetan, beti ere komunitate eramaileen eskutik eta horien hobe beharrez? Egitura pribatu horrek emaitza positiboak

lor ditzake lekuan lekuko garapenaren esparruan, bide batez errentagarria izanik?

Labriten (www.labrit.net) hamabi urteko esperientziak dio baietz. Arrakasta izan duen ekimena izan da. Gaur, hamabi lagunez osatutako lan talde multidiziplinarra da. Antropologia ardatz hartuta, ondare immaterialaren kudeaketaren bitartez, iruditerien esparruan busti eta lokazten den egitura, beti ere, lekuan lekuko komunitateen idiosinkrasiatik abiatuta eremu produktiboan balio erantsia sortuz.

Orain arte azaldutako guztian oinarrituta, zein dira egitura horrek abiatutako lan ildoak? Modu telegrafikoan azalduta, honako hauek:

- Bizitza historiak biltzeko metodologia antropologikoari jarraikiz, ahozko memoriaren bilketa sistematizatu partizipatua ikus-entzunezko formatuan. (Eremu geografikoetan edota ezagutza esparruen arabera.)
- Ahozko memoriaren bilketan oinarrituta, berorren transmisio partizipatua ikus-entzunezko formatuan. Ondare hezkuntza. (Dokumental etnografikoak, webguneak, unitate didaktikoak hezkuntza formal zein informalerako.)
- Ingurumenarekiko kontzientziazioa ikuspegi holistikotik hurbilketa antropologikoaren bidez. (Ibaiei eta ur masei buruzko ikus-entzunezkoak.)
- Kultura eta identitate turismoaren alorreko ekimenak eta egitasmoak.
- Administrazioendako aholkularitza:
 - Kultura Ondare Immaterialaren Inbentarioko Plan Zuzendariak.
 - Kultura Ondare Immaterialaren Aurreinbentarioak.
 - Kultura Ondare Immaterialaren Inbentarioak.
 - Kultura Intereseko Ondasun adierazpenetarako espedienteak.
 - Erakusketak, proiektu museografikoak eta ibilbide turistikoak.
 - Hiriguneetako Ondare Immaterialaren Kudeaketarako Plan Estrategikoak.

- Arlo pribatuarendako aholkularitza:
 - Artisauen babeserako txostenak.
- Aplikazioak esparru produktiboan:
 - Jatorrizko Izendapenendako komunikazio kanpainak: Erronkari Gazta, Idiazabal, INTIA...
 - Marka identitarioen sorrera, branding kulturala: Arras Baztan.
 - Genero berdintasunaren aldeko egitasmoak: INAI, Emakunde...
 - Ur masei buruzko eta natur eremuei buruzko komunikazio kanpainak: Ura Agentzia, IHOBE, Nafarroa Garaiko Ingurumen Saila, GAN-NIK...
 - Landetxeak.
 - Produkzio ekologikoa: Trigo Limpio, Larre Goxo...
- Familia Ondare Immateriala: edozein pertsonak bere bizitzaren lekukotasuna utz ahal izan diezaiela bere familiako hurrengo belaunaldiei, eta, bide batez, familiaren imajinarioaren elementu nagusiak identifikatzea.

Adierazgarria da, oso, artikulua hau idatzi eta txukuntzeko erabili ditugun asteotan zehar jakinarazi duela EITBk bere «euskal Netflix bat» osatuko duela. Hau da, lehenago aipatu dugun euskarazko ikus-entzunezko edukiekin osatutako sasieltze propioaren hautua errealitate bihurtuko du Euskal Herriko komunikazio talderik handienak. Ildo beretik, Nafarroa Garaiko Gobernuak ere ikus-entzunezko biltoki birtuala (bere sasieltze propioa) abian jartzeko txostena aztertzen ari da uneotan, bere telebista seinale propioa ukan dezakeena, gainera.

Badirudi suaren eraginkortasunaren beharraz ohartzen hasiak direla nazio estaturik gabeko herri honetako administrazio autonomikoetako bi (Euskal Hirigune Elkargoa aukera horietatik urruti dakusagu gaur-gaurkoz).

Ikusteke dago gerora, benetan, zer ur erabiliko duten zopa egiteko eta zenbateraino izanen diren sasilapiko berri horiek baliagarri, estalkirik gabe, biziraupena bermatzeko frantziar, espainiar eta kontsumo estandarizatzailearen nazioarteko eltze erraldoien artean.

Azpimarratzekoa da, bertzalde, gai honen inguruan ekimen herritarrak sortu direla azken hilabeteotan: *Netflix euskaraz*, *Disney euskaraz* edota *Pantailak euskaraz* herri ekimen txalogarriak abian dira. Horien indarra, euskalgintza guztiare-narekin batera, ohi bezala, erabakigarria izan daiteke gure zoparen biziraupena bermatzeko. 🍷

Oharrak

1. 2020ko urrian, Alex Ibañez Etxeberria irakaslearen zuzendaritza-pean, EHU defenatutako *Memoriatzariak. Memoriaren eta Ondare Immaterialaren balioaren kudeaketa: Labrit kasua* doktore tesian oinarritutako hausnarketa.
2. Twitter: «En el siglo XXI, una nación ha de ser la comunidad humana que comparte un sistema público de salud, un sistema de seguridad social y un sistema de educación pública financiado en común para garantizar los derechos de todos. Otros conceptos de nación me sobran, incluidas banderas».

Bibliografia

- Amezaga, Josu (2016): *Zein dira euskal sormen lanen berri hedatzeko zailtasunak?*, Mahai ingurua, Jalgi Jardunaldiak, Amurrio, 2016-06-26 (www.youtube.com/watch?v=ntNVxWTtiPE&t=6254s).
- Apodaka, Eduardo (2015): *Identitate eta anomalia*, Iruñea, Pamiela.
- Christofoletti, Rodrigo (2017): *Bens Culturais e Relações Internacionais. O Patrimônio como Espelho do 'Soft Power'*, Sao Paulo, Leopoldianum.
- Esparza, Jose Mari (2018): *Apología*, Tafalla, Txalaparta.
- Federici, Silvia (2019): *Mundua berriz liluratuz. Feminismoa eta komunen politika*, Iruñea, Katakarak.

Lekeitio Lemoizen da

Juan Gorostidi Berrondo

Ekialdeko hainbat tradiziotan aditua, musikan eta politikan ikertzailea

Lekeitio saileko zati bakoitza abotsaren erretze inizatikoaren eremua ditake eta heriotzaren premonizioa. Lehen eta azken hatsaren arteko epe laburra. Nostalgia-
ren minaren mina. Ugaria eta bakuna. Gurea eta bestere-
na. Egun batez Lekeitio saileko puskak bateratuko dituz-
tenean, xx. mendeko sinfonia azalez kaotiko eta mamiz
sakon den pieza osatuko dute. Iraunahiari omenaldia.

Itxaro Borda¹

1

Kontzientzia arkaiko baten pean bizi zen munduan jaio nintzen ni, baina hori esan badezaket da ez dudalako dagoeneko mundu oso eta biribil hori habitatzen.²

Nire gurasoak eta bizilagunak, eta baita nire irakasleak ere, nik 18 urte izan arte-edo, kontzientzia hartan haziak eta ohituak ziren.

Gerora barneratu dudan kontzientzia modernoarekin alderatuz, kontzientzia hark hainbat ezaugarri zituen, baina garrantzitsuena haxe iruditzen zait: pertsona bakoitzak, xumeenak nahiz jasoenak, *destino* bat bizi zuela uste zuen; norberaren bizitzaren gorabehera guztiak Beste Handi Transzendente batek emanak ziren, eta haren ardura nagusia zen emandako gidoi hura ahalik eta egokien betetzea.

Bizitza oso gogorra eta nekeza zenean ere, oinarrizko konfiantza baten gainean sostengatzen zen, eta konfiantza hori zen Beste Handi hori Orojakilea zela, eta Ahalguztiduna. Baina, gainera (gure ingurumen katolikoan), funtsezko Zuzentasun batek gidatzen zituen haren ekimenak, eta baita gure entendimentuak ulertu ezin zuen jendearekiko Erruki sakon batek ere.

Kontzientzia hark bazuen gaitasunik norberaren destinoaren baitan gertatutako nahigabe edo desguziarik mingarrienei ere aurre egiteko, halako oreka absolutu, biribil, bete baten baitako sinesmen edo konformidadean irauteko, bizitza hau denbora infinitu baten zati txiki ezdeus bat baino ez zelakoan.

Kontzientzia Modernoa Kontzientzia Arkaiko haren ukaziotik altxatzen da (edo, askok uste duten bezala, kontzientzia haren bilakaera batetik): «Ahantz dezagun Beste Handi hori eta har dezagun Geure eskuetan geure destinoa», esaten die subjektu modernoak bere buruari eta bere hurkoei.

Baina Ahalari, Jakinduriari, Zuzentasunari eta Errukiari uko egin gabe. Ordura arte gure eskutik, gure ahaletik ia erabat kanpo zegoen denboraz gaindiko Potentzia Absolutu baten ardura Beragan hartzea erabaki du Subjektu Modernoak: gu guztiok kontzientzia horren baitan bizi baikara, aspaldian.

2

Kontzientzia Arkaikotik Kontzientzia Modernora doan urratsa, lekualdatze funtsezko hori, gaztetasunaren aldaketarekin eta oldarrarekin batera gertatu zen nire kasuan. Eta garai hartan pasioak eta erabakimenak lekualdatze hura atzemateko tarte handirik uzten ez bazidaten ere, sekulako arrakala eragin zuen nire baitan –nola bestela–; orain jabetzen naiz horretaz.

Gainera, arrakala hori modu masiboan bizitza tokatu zitzaigun nire adinekooi; fenomeno kolektibo bat izan zen hura, iratzartze moduko baten eran ulertu/ez ulertu genuena. Eta iratzartze horrek eta lekualdatze sakon eta inkontziente horrek izan zuen adierazpen argi eta nahasezin bat: Laboak

70eko hamarkadan zehar sortu zituen lau pieza bakanak bere ahots androginoz eskainiak, harritzen eta harrapatzen gintuztenak: *Baga Biga Higa*, *Gernika*, *Orreaga* eta *Dialektikaren laudoria* piezak.

Oso ulergarria zen pieza horiek pizten zuten harridura, jende asko marmarrean jartzzen zuena: «Nola liteke hori egitea, iraingarria da; hori ez da kantatzea ere, are gutxiago euskal kantua». Hura ez zen kontu estetiko hutsa, kontzientzia aldaketa baten lurrikararen ezaugarria eta adierazlea baizik.

xx. mendeko lehen erdiaren oinordeko zen Laboa, eta egunotan harrigarria egiten den uholde baten parte:

Hitzezko kaiola bat egin nahi bagenu, eta bertan Mikel Laboa utzi harrapatuta, xx. mende hasieran gertatutakoa hartu beharko genuke aintzat, eta esan: «Krisi handi bat hedatu zen, eta pintoreek, idazleek, musikariek inoiz baino garbiago ikusi zuten beren adierazpidearen *gutxitasuna*. Iraganetik jasotako modu eta hizkera guztiak faltsuak iruditu zitzaizkien, edo bestela hutsal, burgeskeria huts. Gero Lehen Mundu Gerra etorri zen, ordura arteko krudelena, eta hari Gernika, Auschwitz, Hiroshima jarraitu zitzaizkion, eta pintoreak, idazleak, musikariak, isiltasunaren mugetaraino joan ziren Herio Piztia Likitsaren aurkako obrak asmatu nahian. Herri tradizioa jo zuten, umeen edo burutik egindakoen adierazpen moduetara, hizkuntza eta hizkera arruntak ukatzen zituen sorkuntzara. Bereak egin zituzten, halaber, arte mota arbuiatu eta *pupular* guztien formak. Bertolt Brecht, Tristan Tzara edo Paul Celan dira adibide. Eta Ungaretti eta John Cage. Eta Picasso eta Dubuffet. Roy Hart eta Joan Brossa...³

3

Baina hurrengo hamarkadan, 80koan, dena aldatu zen gutako askorentzat: kanpoko eta barneko suteak apaldu ziren

Kontzientzia Arkaikotik
Kontzientzia Modernora
doan urratsa,
lekualdatze funtsezko
hori, gaztetasunaren
aldaketarekin eta
oldarrarekin batera
gertatu zen nire kasuan

neurri handi batean, eta gertatu zitzaigunaren neurriaz eta zauriaz erabat jabetu gabe, Kontzientzia Modernoa gauza jakina eta emana kontsideratzen hasi ginen.

Zer zen kontzientzia hori? Kontzientzia Arkaikoak Beste Handian proiektatzen zuen beharra (zerbait Ahalguztidun, Orojakile, Zuzen eta Errukitsu baten premia hori) beste non-bait, Nigan eta Guregan, proiektatzea:

Ahala geure kontua zen, ez kanpoko inorena, eta horrek bihurtu gintuen Botere guztiekiko bereziki sentibera, minbera. Modernitatea deritzogun hori inoizko Botere erakustaldiarekin abiatu, hedatu eta gailendu zen xv.-xvi. mendeetatik aurrera, eta paroxismora ailegatu zen xx. mendeko gerrateetan.

Jakituria ere geure esku egon behar zuen: geuk jakin behar genuen, eta horrek Zientziaren eta horren ondoriozko Teknologien inoizko garapenik eta onarpenik sakonena ekarri zigun. Bitartekari gisa hasi zena helburu eta ardatz, *destino* bilakatu zen ondoren.

Zuzentasunak ere geure esku behar zuen, eta geure denboraren baitan gauzatu beharra zuen. Hautsi nahi genuen gure aurrekoen etsimendu otzana, eta justiziaren behin betiko legea eraiki. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala kontu modernoa izanda, haren gauzatze praktikoa exijitzen genuen, eta edozein gazterengan zegoen 'iraultzaile' zelako ustea. Matxinada moderno guztien oinordeko genituen geure buruak, denbora gehiegirik ez bagenuen ere matxinada horiek zer izan zuten iraultzailetik, garaipenetik ala porrotetik baloratzeko.

Errukia, berriz, norberaren burutik hasten zen zerbait zen, Desio hitza jarri zen gure kontzientzien erdigunean; ordura arteko errepresioetatik libratu nahi genuen, haren sustraiak eta iturburuak ezagutu. Horrek eragingo zituen ondorioak onartzeko prest geunden. Hurkoarekiko behar zen errukia berezkoa bilakatuko zen, justiziaren baldintzak ezarriz gero.

Gure ondorengo belaunaldiek ez badute aldaketa zorabigarri haren pertzepziorik, ez du esan nahi lurrikara horren

ondorioen baitan bizi ez zaretenik –ez garenik–; baina ez jada tokian tokiko fenomeno gisa, Europan azken bost mendetan garatutako prozesu horrek Mundu osoa baitzuen xede. *Globalizazioa* prozesu horren hedatze bortitza adierazteko modu bat da. *Kapitalismoaren gailentzea* beste bat, zeinak etengabeko arpilatzea, suntsiketa, kolonizazio patriarkala berarekin duen eta XXI. mendearen kontzientzia kolektiboan barneratzen ari den konstatazio bat: «Ailegatu gara mugara; hau Hondamendia da».

4

Laboaren lehen *Lekeitioei* dagokienez, zerbait oso adierazgarria gertatu zen 80ko hamarkadatik aurrera: gehientzat estaliak geratu ziren –arrazoia emanez hasieratik onartezintzat zituzten haiei–, baina, aldi berean, lehengo kritika haiek apaldu egin ziren: Laboa guztion ondare bihurtu zen, eta *Lekeitioak*, apenas entzuten baziren ere, ‘onartuak’ izan ziren gure modernitatean, Arteari ematen zitzaion kultuzko funtzio berrian. Laboak berak onartu zuen aldaketa hura: lehenago leherketa batek erreietatik behartzen zuen arrakala baten adierazpena izan zen hura arte kontzeptuala bilakatu zuen: *Itsasoa eta lehorra*, *Txerokee* edo *Mugak* pieza kontzeptualak dira, apenas dute zerikusirik aurrekoekin, ez bada Laboaren ahotsa eta beste. Euskal jendarte modernoak barneratu egin zuen adierazpen hura, eta Kontzientzia Arkaikoaren klerigoentzat Idolatriaren zantzu nabarmenak zituena ikono bilakatu zen Kontzientzia Modernoaren tenplu berrietan: Unibertsitatean, orkestra sinfonikoz eta abesbatzez hornituriko antzokietan, Arte Garaikidearen tenpluetan... Gordinkeria eta desmasia hura amaitua zen, eta xx. mende bukaerarako Laboa gu guztion amona bilakaturia genuen.

Argigarria da Laboak berak argitara eman zuen azken bertsio kanonikoan –*Lekeitioak*, 2007– orkestraz eta orfeoiez grabaturiko erdipurdiko bertsioak lehenetsi zirela, eta osagarri gisa ipini zirela aurreko bertsioak, salbuespen batekin:

Orreaga-ren lehen bertsio ‘eroegia’, 1980koa, desagerrarazi egin zen, eta, haren ordeztan, 1988an grabaturiko tempo mantsogokoa sartu.

Kontzientzia Arkaikoa indarrean zegoen bitartean, Beste Handiari eraikitzen zitzaizkion tenpluak, kaperak eta katedralak. Aro Modernoan, hura guztia Ondare Arkeologikoa bilakatu da, eta tenplu berriak sakabanatuak izan dira ordeztatzen duten agintearen ohorez: Ahalaren, Jakintzaren, Zuzentasunaren edo Errukiaren nagusitasuna sustatzeko:

Botereak, ohiko kapitolio eta jauregiez gain, zeruak urratzeko gai diren eraikinak jaso ditu bere gurtzarako, baina baita estadioak edo egoitza olinpiko harrigarriak ere, arkitektoek inoizko sona handiena duten aroan.

Jakintzak, bere aldetik, unibertitate, laborategi eta institutu teknologikoak bihurtu ditu katedral.

Zuzentasunak eta Errukiak norberaren baitan eta zaintza profesionalizatuan jarri dute azpimarra, eta gimnasioak

Lehengo Jainkoek
eskatzten zuten
miresmen, atxikimendu
eta debozio berbera
edo handiagoa eskatzten
dute Kontzientzia
Modernoaren
tenpluetako nagusi
kontaezinek

eta kirol eraikuntzak barreiatu dira bazter guztietan, garai bateko kapera eta eliza lekuan, eta baita psikologoak eta era guztietako mediku, terapeuta eta sendagileak ere. «Yoga eta meditazioa guztientzat!» aldarrikatzen da egun, lehen misioak, bederatziurrenak eta prozesioak ziren lekuan. Eta, nola ez, Artea. Euskaldunok horretan –Oteizaren madarikazioak gorabehera– lortu genuen lehen lerroan ipintzea;

Loiolako Ignazioarekin XVI. mendean nola: Guggenheimekin jarri genuen Bilboko tenplua munduko katedralen mapa berrian, eta, egun, ez da herrixka edo auzorik geratzen gure lurraldean bere museorik edo kulturgunerik ez duenik: desagertzeaz dira sotanak, biba arte eta kultur programatzaileak!

Lehengo Jainkoek eskatzen zuten miresmen, atxikimendu eta debozio berbera edo handiagoa eskatzen dute Kontzien-
tzia Modernoaren tenpluetako nagusi kontaezinek.

5

Aro Modernoa bidaien aroa ere izan da. Lehenbizi, ero edo desesperatu haiena, gure artean Europatik Ameriketara egiten zena, gehienbat. Baina 80ko hamarkadatik aurrera, masa-turismoa besarkatu genuen guztiok pozarren. Gutako nor ez da hurbildu beste kontinente batera? Harrigarria da bizitza osoa hamar edo hogeik kilometroko esparru geografikoetan pasatzen zuten seme-alaba edo ilobentzat. Mundua 'txikia' egin dugu, eta 'Herrixka Globala' deitzen diogu, lasai-lasai.

Ez genekien nonbait Asiara, Ameriketara edo Afrikara egiten genituen bidaiak haiekin lurralde haiek gurekin ekartzen genituela etxera bueltan; ez genekien Txina, India, Brasil, Maroko edo Hegoafrika gure esparru materialean eta mentalean sartzen zirela, bat-batean. Baina zer dakigu lurralde haietaz, hango bizimoduez, hango jendeaz?

Ezer ez badakigu ere, ekarri ditugu etxera, eta birusak eta pandemiak egia argigarri hori ere leherrarazi digute, muturrean. Gure arropa Bangladeshen edo Txinan egina da, gure gailuak Afrikako meategietatik eta Txinako faktoretatik ekartzen dira, gure elikagaiak Almeriako negutegietatik, eta gure energia Aljeriatik edo Frantziako zentral nuklearretatik.

Jakinduriaren Tenpluko apezpikuek biziari diguten zifren eta datuen eromenean, merezi du kontu batzuk ateratzea –10en baitakoak, 11 ulertezina baita ia, mugagabearen pareko gure buru arkaikoan–: Mundu osoa bat egina dugun honetan, munduko 10 biztanletik 6 Asian bizi dira (eta han 10etik 2 Indian eta beste 2 Txinan); 10etik 2 Afrikan; eta Amerika osoaren eta Europaren artean beste 2ak. Proporzio horiek adinarekin gurutzatuz, kontuan hartzekoa da europarron batez besteko adina 45 urtekoa dela, eta afrikarrena 18 inguruan dagoela (Ugandan, zeinak Iberiar penintsularen

erdia lurrazalean baina antzeko biztanleria duen, 15 urtekoa da batez besteko adina).

Indian soilik, Nazioarteko Diru Funtsak bultzaturiko azpiegitura erraldoiek –urtegiak, autobideak, meategiak...– 30 milioitik gora pertsona lurgabetu eta etxegabetu dute azken lau hamarkadetan, megapolietako txaboletara behartuz. Meatze berrien ustiatzeak gerrak pizten ditu mundu osoan: hilketak eta sarraskiak egunero Amerikan, Afrikan eta Asian. Eta zein da gure kontzientzia, gure erantzuna? Europa immune bat sortzeko espantuzko ihesa edo lasterketa, gero eta baldintza gogorragoak ipiniko dizkiena gainontzekoei, segidan hondamendia ekarri duen orain arteko ereduari ahalik eta tinkoen eusteko.

Hannah Arendtek 1943an *We Refugees* liburuan proposatu zuen hiritar kategoria errefuxiatuarenarekin ordezkatzea. Afrikan soilik eta bertatik atera gabe, 80 milioitik gora dira, egun. Eta «Auschwitz posible egin zuenak bere horretan dirau», idatzi zuen Imre Kertészek aurreko mende amaieran.⁴ xx. mendearen bigarren erdiko orekak hautsita eta mende berria inauguratu zuen ‘Terrorearen aurkako gerrarekin’ lehertzeaz da gure kontzientzian azken hamarkadetakako burbuila.

«Gorrotoaren politika» aipatzen nuen nire hitzaldiaren izenburuan, Tabakalerak proposatutako *Non dago Lekeitio?* galderari erantzun bila. Hori da Kontzientzia Modernoarekin batera munduan zehar europarrok hedatu duguna. Eta sumindura da munduko zapalduerak utzi diegun baliabide ia bakarra. Gure gaztelua erabat gotortuta ere, ezingo dugu sumindu horien guztien uholdea saihestu, eta orduan aukeratu egin beharko dugu norekin egon eta ekin: suminduekin ala sumindura hori eragiten dutenekin.

70eko hamarkada bizi genuenontzat, hautatu behar horiek eguneroko kontua ziren; baina, gerora, hamarkadak pasa ditugu lozorroan, geure pribilegioak gauza naturaltzat hartzen, *txikiegia* bilakatu den mundua hondamendira bultzatzen. Hori guztia bukatzen ari da, eta, hitzaren zentzu estuan, bizi

dugun aroa *apokaliptikoa* ere bada: ezkutuan zegoena begien bistara dakarren aroa.

Kontzientzia Arkaikoak eskaintzen zuen bitartekaririk gabe, zenbat eta mehatxatuago sentitu, orduan eta gehiago jainkotuko ditugu geure Ahala eta Jakintza. Ahal hori jainkotuz, Estatu teknofaxistak sortzeko bidean gara. Jakintza jainkotuz Zientziaren esku uzten ditugu arazo eta gabezia guztien kudeaketa eta aterabidea, baita kontu intimoenenak ere: gaixotzearena eta heriotzarena.

Eta nago, lehen Laboa-medium hark bideratu zituen hitzen aurreko eztanda hura, oihu salbai eta murmurio haiek, entzun beharko ditugula beste behin, nola edo hala itotzen gaituen kristalezko edo altzairuzko burbuila hori barrualdetik edo kanpotik leher dadin.

6

Euskal kostaldean bada leku bat, Bakioko hondartzaren eta Armintzako portuaren artean, turismo mapetan agertzen ez dena: Basordasko kala, Lemoizen. 1972an hasi ziren estaltzen 200.000 m³ hormigoi erabiliz horretarako, eta garaiko puntako teknologia nuklearra, eta hainbat gorpu. Orduko agintariak ezinbestekotzat zuten («Lemoiz geldiaraztea gizarte hondamena izango litzateke», deklaratu zuen 1979an Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta «Lemoiz ezinbestekoa da Euskal Herriko ekonomia aurrera atera ahal izateko» Pedro Areitiok, orduko Iberdueroren lehendakariak), baina, 1984rako, zentrala martxan jartzeko prest zegoenean, bertan behera gelditu zen. Asko hitz egin eta idatzi da hamarkada luze horretan gertatutakoaren inguruan. Nire ustez, Lemoizen inguruan gertatutakoan gordetzen dira aro hartako gako nagusiak, eta ez da kasualitatea Laboak urte haietan plazaratzea aipaturiko lehen aroko lau *Lekeitioak*.

Gerora zentral hura hustuz joan zen bezala, egungo oskol huts eta fantasmagorikoa bilakatuz, hustuz joan dira garaiko aztarnak, eta baita, neurri handi batean, *Lekeitioen* zentzu

sakonena ere. Horrexegatik diot *Lekeitio Lemoizen dela*, herri honek ezkutatu *behar* duen memoria ilunaren orban eta orban estalian –ala, ironia handiz, gure agintariak arrain-haztegi bilakatu nahi duten ezleku horretan, arrainen memoria eta gurea gero eta antz handiagoa hartzen ari diren mende berrian–. 🐟

Oharrak

1. ‘Zehar bideak’, 1995ean Elkarrek argitaratutako *Mikel Laboa* liburuan.
2. Donostiako Tabakalera, *Non dago Lekeitio?* ekimenaren barruan, ‘Gorrotoaren politikaz: sumindura, azken giza baliabidea’ 2021eko martxoaren 6an emandako hitzaldia.
3. Atxagak *Xoriek 17* (Elkar, 2005) Laboaren azken diskoaren libretoan idatzia.
4. 1997ko *Valaki más* (Beste norbait) liburuan. Gaztelera, *Yo, otro. Crónica del cambio* (Acantilado, 2002). Frantsesez, *Un autre. Chronique d'une métamorphose* (Actes Sud, 1999).

EGUNEN GURPILEAN

75 Kultura

Artelan bilduak galdutako ETAn
Kuku, kuku, kuku
Inprobisazioaren eta segurtasun faltaren
alde
Kulturgintzaren artikulazioaz: Azpeitiko
Sanagustin kulturguneko jardunaldiak
Maialen Akizu Bidegain

83 Soziolinguistika

Udaberria
Kantatzen ez dakien txoria
Euskarianen basoa
Aroztegia
Babesten gaituen lekua
Jaime Altuna Ramirez

90 Glokalia

Ez zaitez hil!
Bitartean kriogenia, zizareak edo txipak
Edo bitartean heldu eskutik. Nartzizismoa
ala zaurgarritasuna partekatzea?
Koronabirusaren marka
Iñigo Martinez Peña

Artelan bilduak galdutako ETAn

Iñigo Astiz idazle eta *Berría* egunkariko kazetariak erreportaje mamitsua ondu zuen maiatzaren 30ean. 'ETAk bildutako artelan galduak'. Izenburua bera erakargarria zen, eta, kulturako albisteekin askotan gertatzen ez den bezala, gehien irakurriena izan zen hiru egunez.

Gernika 70 izena zuen ETAk 1970eko hamarkadako Paris hartan egin nahi zuen proiektuak. Nazioarteko lehen lerroko hainbat artistaren lanekin erakusketa bat egitea zuten helburu Francoren erregimena artearen bidez salatu guran, eta tartean, Joan Miró, Josep Guinovart, Roberto Matta eta Antoni Tàpies bezalako artista sonatuak ziren Francoren diktaduraren gaitzespenaren eta ETaren garaiko tokiaren adibide. Erakusketaren antolatzaileak erakundearen adar kulturaleko kide Patxi Apalategi, Jose Mari Larramendi eta Martin Etxeberria ziren, baina 70eko urte hartan ETaren VI. asanblada nahasia gauzatu zen. Abuztuaren 31 zen, Itsasuko ostatu baten bueltan elkartu ziren hainbat kide 'Proposizio generalak' adostea xede. Kontrakotasun askoko asanblada izan zen, eta, besteak beste, bilkura horren ostean utzi zuten antolakundea Txillardegi buru zuen Branka taldekoek, hala nazioari nola hizkuntzari ETA bizkar ematen ari zela iritzita.

Parisen egitekoak ziren artelanen erakusketa bertan behera gelditu zen halabarrez: erakundearen giroa ozpindu eta, gainera, egun batez, Patxi Apalategiri militante bat agertu omen zitzaion bere gelan pistola eskuan. Artelan guztiak eraman zituen. Nondik norako gehiago jakin nahi badituzu, irakur ezazu Astizen artikulua.

Eta kasualitateak zer diren. Istorio hau irakurri baino pare bat aste lehenago esku artean izan nuen Antoni Tàpies margolari kataluniarraren memorien liburua. *Memoria personal. Fragmento para una autobiografía*. Ez nuen Tàpiesen berririk (inkultua neu), baina bere margolanek zerbait esaten zutela eta ulertu nahian leitu nuen liburua. Tàpies Francoren eta bere erregimenaren aurka garbi kokatzen zen. Memorieta kontatzen du argazki bat baduela euliak gorotzetan nola Franco garaiko eliteez inguratuta, Tàpiesen koadro bati so. Taldeko batek esan omen zion: nagusi, hori iraultzaileen pareta da. Diktadorearen erantzuna: «Iraultza horrela egiten badute...».

Iraultza eta kultura, bereizi balitezke, beti batuta joan dira. Gurean ere ETAREN jardun politikoa asko azpimarratu izan da, eta, kontrara, bere izate kulturalaz deus gutxi dakigu. Onintza Odriozola historialariak, *Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)* doktore tesian, antolakundearen lehen urteen azterketa egiten du; hasiera hartan euskara eta euskal kultura bere diskurtsoaren erdigunean egon zirela azpimarratzen du, eta hori gabe ezin daitekeela ulertu bere jardun eta babesari.

Maiatzaren 15ean, Katakraken, UEUK antolatuta, *Gatazkaren irakurketa feministak* izeneko jardunaldiak egin ziren. Gatazka armatuak euskal literaturan izan duen lekua eta sortutako genero imajinarioak jorratu ziren batik bat, baina beste kultur adierazpide batzuek gatazka edo gatazkekin izan duten harremana ere izan zen hizpide. Ikus-entzunezkoak, adibidez. Zein molde den objektiboago debatean sartu gabe, aipatu zen euskal gatazkaren errelatua Euskal Herritik gehiago egin dela dokumentaletatik, eta, aldiz, Frantzia eta Espainiako estatuetatik datozenak gehiago direla pelikula eta serieak, fikzio deitzen ditugun horiek, alegia.

Eman zidan zer pentsatua. Eta *Fakirraren ahotsa*-k erantzunaren puska bat:

Arteak aukeratuko lukeen amaiera ez du beti bizitzak hautatzen, gero bizitzak arteak kontatzen diona sinesten duen arren. Hori

da izan, artearen akabuko garaipena: munduak harekiko duen sinesberatasuna.

Erantzunaren beste puska bat Katakrakeko idazleen mahai inguruan Uxue Apaolazak esandakoak: «Tokatzen ez denean egin behar da literatura».

Kuku, kuku, kuku

Badugu lagun kolonbiar bat, Guadalupe. Aurten Donostia-ra masterra egitera etorri da eta halaxe ezagutu dugu elkar. Hurrengo eguneko klaseaz ari ginen, eta ni, nire gaztelera euskaratuan, denboraz larri nenbilela baina kasu egitera pasako nintzela esan nahian. «*Luego, si eso, paso a hacer un kuku*». Urtebetean ohitu da gauzak ez ulertzen eta hala esan zidan, ea zer zen *kuku*. Nik azaldu nion *kukua* txoria zela baina kuku bat egitea agurtzea zela. «*Qué lindo*».

Hizkuntzak gure izateari buruz asko dioela badakigu jakin euskaldunok. Galdezka eta bila hasi nintzen ea guk *kuku* ezinbestean entzuten dugun hori nola deszifratzen duten frantsesek, edo arabiarrek edo amazigek. Gaztelarak *cú-cú* entzuten du, baina besteenik ez dut deskubritu. Gari Araolazak Twitterren kontatu zuen kukuen kantuak grabatzen aritu zela udaberriari Gipuzkoako hainbat tokitan, eta ohartu zela kukuak beti hirudun minorreko bitartean kantatzen duela, bi tonu eta semitonu bat jaisten dela notez, beste era batera esanda (Mi-Do). «Entzumen absolutua» omen du kukuak, ez baita gaitasun arrunta beti notari tonu bera ematea.

Kantuari jarraitu nahian, Resurreccion Maria Azkueren *Euskalerraren yakintza* liburura jo dut. Kukuaren inguruko hainbat istorio biltzen ditu. Ohituretako batek dio, *kukua* kantatzen hasten denean, *kuku zenbat urteko bizia ematen didazu?* galdera egin behar zaiola txoriari, eta haren kukukadak kontatzen hasi. «Batzuetan bat yoten du, bestetan irurogei ta gehiago ere bai». Nik ere hori jakin nuenean hasi nintzen

azkenengo kukukaden luzea gogoratu nahirik. Lasai. Badira beste bi uste ere: «Kukua entzuten badau, urte hartan ezta ilgo», baina «Aurten kukuaren otsa entzun eztuena, datorren urtean ezta bizi izango». Kukupida gutxi.

Inprobisazioaren eta segurtasun faltaren alde

«Inprobisazioaren» alternatiba EH Bildu dela aldarrikatu du Arnaldo Otegi. Jone Bengoa antzerkigile gasteiztarrak *Kabilia* antzezlanaren publikoaren erreakzioekin batera moldatzen eta hobetzen du. Arantxa Tapiak dio «txertoarekin ekonomiari segurtasuna ematea» lortuko dugula. *Argia* aldizkarian Saioa Baleztenak Marta Bellvehí artista kataluniarraren hitzak dakartza titularrera: «Hemendik hilabete batzuetara zertan lan egingen dudan ez jakitea gustatzen zait». Gobernuen eta farmazia enpresen arteko kontratuen «gardentasun falta» salatu du International Transparency erakundeak. Ana Malagonek hirugarren ipuin liburua argitaratu du: *Ez dakit zertaz ari zaren*.

Politika eta kultura hitz berberetan urruntzen dira.

Kulturgintzaren artikulazioaz: Azpeitiko Sanagustin kulturguneko jardunaldiak

Maiatzaren 28an, Azpeitiko Sanagustin kulturguneak hamar urte betetzearen karira, Azpeitiko Kultur Mahaiak eta Jakin Fundazioak *Kulturaren artikulazioa: nondik, zertarako eta nola* izeneko jardunaldiak antolatu zituzten. Ekitaldiaren kronika, bideo eta argazkiak sarean daude eskura, baina parte hartzeko okasioa izan nuenez eta kazetarien errealitatearen diktaduratik salbu, han aipaturiko kontu batzuk ekarri nahi ditut paperera.

80 lagun elkartu ginen ostiral goizez. Areto bete eta goxoak pandemia garaiko distantzia eta hoztasunak apaltzen zituen.

Aspaldikoka gerturatutakoak. Azpeitiko alkate Nagore Alkortaren eta Sanagustin Kulturguneak 10 urte Herri Batzordeko Inazio Arakistainen hitzek hasi zuten ekitaldia, eta ondoren Lorea Agirrek hartu zuen mikroa. Joxe Azurmendiren 1992ko hitzak gogora ekarriz, «Euskal Herri atomizatuaren aurrean, kulturgintzak esan lezake soilik nazioa non bildu». Talde edo komunitatearen ekintza da beraz kulturgintza, eta ezin bereizi hizkuntzatik.

Harkaitz Zubiri soziologo, idazle eta unibertsitateko irakasleak David Foster Wallaceren hitzaldi bati hasiera eman zion kontakizuna ekarri zigun Azpeitira. Ba omen ziren bi arrain; arrain zaharrago batekin gurutzatu ziren pasieran eta honek galdetu: «Nola dago ura?». Beste bi arrainek erantzun ez, eta aurreraxeago elkarri galdetu: «Ura, zer da ura?». Kontakizunari tiraka, Zubirik kulturaren beharra zein elkarrekin gauzak egiteko beharra azpimarratu zuen: «Kulturak ez du mundua aldatuko, baina alda dezake mundua alda dezakeen jendea».

Ur handitan sartzeko errespetuz, neronek ere Azurmendiren hizkuntzaren kezka eta pasiotik abiatu nuen hitzartzea. *Kulturgintzaren artikulazioa* izenburua irakurtzean, kulturgintzari bestela ere ematen dizkiogula eta artikulazioari hasi nintzen buelta ematen: zer da, zer ez da, noiz ari gara artikulatzen, noiz saretzen, noiz hibridatzen... Ez naiz filologoa eta nire asmoa ez zen debate terminologikoa planteatzea, baina gizarte zientzietan gabilzanoi askotan leporatzen digute hiztegia puzten dugula errealitatea aztertu beharrean; eta, horrez gain, edo batik bat, kezkatzen nauena da ideia berriak plazaratzeko erabiltzen ari garen terminologia euskaratik ez etortzea. Ez dut azterketa kuantitatiborik egin, baina intuizioa dut aspaldi ahotan dabilzkigunak, izan 'interseksionalitate', izan 'integrazioa', izan 'ekosistema' (eta pandemiaren pcr-ak eta konfinamenduak zer esanik ez) erdaretatik datozela, eta guretu egiten ditugula itzulpenik egin gabe.

Halakoetan gure amona ekartzen dut gogora. Nola esango luke berak? Edo nola esaten da *artikulazioa* euskara jatorrean

edo euskara zikinean baina euskaratik pentsatuta? Sinonimoen hiztegiara jota, artikulazioaren sinonimo gisa ‘giltzadura’ kontzeptua proposatzen du. Giltzadura. Giltza horrek irekitzeari egiten dio keinu, eta atzizkiak, berriz, baturari. Izan daiteke. Edo artikulazioaren sinonimo ‘txirikordatzea’ ere bada. Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen *Trikua esnatu da* lanean hala ageri da:

Gurean hiru zapalkuntza gainjartzen dira –nazioagatikoa, klaseagatikoa eta emakume izateagatikoa– eta ezinbestekoa da hirurak elkarrekin txirikordatuta aintzat hartzea egiazko emantzipaziorik iritsiko bada.

Baina egia da ‘kulturgintzaren giltzadura’ edo ‘kulturgintzaren txirikordatzea’ izenburu gisa pentsatze hutsarekin ahoa listu egiten zaidala.

Hitzak eta kultura bizio, hizkuntzatik pentsatzea bezain gustagarri zait hitzaren formatik harago joatea. Zer da artikulazioa edo nola irudika genezake hitzez beste? Boteprontoko estereotipoek konbentzitu ez eta Googlera jo nuen. Artikulazioaren lehen adiera hedatuena hezurduren elkarketa da. Hezurren arteko lotura, edo hezurren arteko lotura ahalbidetzen duten elementuen multzoa da artikulazioa. Eta izan daiteke kulturaren metafora.

Femurra, haragia eta protesia. Horrelaxe jarri nion izenburu esan nahi nuenari. Femurra, kulturaren kasuan, izen teknikoa duena da, objektibatuta eta sailkatuta dagoena. Metaforatik aterata, kulturgintzan parte hartzen duten instituzioak edo egiturak liriateke. Haragia, berriz, ‘dagoena’ da, ingurua, antolatu gabea kasi. Deitu militantzia, deitu balioak, deitu herria. Protesia, azkenik, hezur-haragi horri lagundu nahi diona da, eta besteen higaduraz txertatu behar izan den zera ‘ez-naturala’. Izan daitezke kultur politikak, edo esku-hartze zehatzak edo gizakiaz harago dagoen paisaia kulturala, esate baterako. Metafora horretan gustatzen zitzaidana zen, femurra, haragia eta protesia esanda, irudikatzen duguna ez dela elementu bakoitza, belauna baizik. Talkak

sortzen du. Belaunean eragitea da bakoitzaren funtzioa, bakoitzak ditu bere konposaketa eta beharrak. Metafora hori baliagarria egin zait ideia batzuk ordenatzeko, eta kulturaren autonomiaren debatea ere kokatu dezake hein batean: nire ustez, kultura ez da belkroaren pare autoekin zein damuarekin elkartu daitekeen elementu bat; femurra eta tibia ezin dira lotu, baina, haragia, hemen gutxiago, han gehixeago, denean behar da.

Nire ustez, kulturak belaunaren antz handiagoa du bihotz edo sentimenduena baino: ibilian ibiltzea bezain ohiko, bezain erritualeko izan dadila.

Eta bide adina ibilkera. Sanagustineko gune hartatik ibilian abiatu ginen, Enekoitz Esnaolaren eskutik, Azpeitiko Kultur Mahaira; handik Durangoko Plateruenaren proiektu berrira joan ginen, Ihintza Orbegozo lagun; Eneko Gorrik Maule, Angelu eta Biarritzen martxan jarri duten *Mintzalasai* ekimenaren arrastoak erakutsi zizkigun; Bertsozale Elkartearen ibili transatlantikoa Miren Artetxek; eta, azkenik, Iruñeko pastoralaren jauziak Ihitz Iriartek. *Lokatza* podcastak dio gabiltzalako gaudela hain zikin. Eta garbiak izatea ez da gure aukera.

Azpeitian elkarrekin egon ginen, lehenengo mahai-inguruan, ondoren mahai-bueltan. Mari Luz Estebanek dio Euskal Herriko mugimendu feministaren ezaugarri behinenetako bat «presentzia» izan dela: presentziatik eta presentzian aritu nahi izan dugu. Euskal kulturgintzara ere eramango nuke ezaugarri hau. Gure txikitasunaren albo-onurak. Espazio fisikoek garrantzi handia izaten jarraitzen dute elkarrekin egon eta artikulatzeko, eta iruditzen zait gure kultura bereizteko faktore izan daitekeela: Netflixeko telesailek ez digute balio elkarrekin egoteko, Aiaraldeko Faktoriako poesia-errezitaldiak bai.

Elkarketa mota ezberdinak daude, noski: arrazoi ezberdinengatik elkartzen gara kuadrillakoekin, bizilagunen bileretan edo antzerki emanaldietan. Diferentzia ez da berdintasunaren kontrako, eta *zenbat eta gehiago* izan, ez da,

derrigor, eta beti, hobe. Eneko Gorrik *Mintzalasai* proiektuaren filosofia gisa trikitiaren hauspoa darabiltela aipatu zuen Azpeitian: arnasa hartzeko ireki, ireki, ireki hauspoa; ordea, konpaktatu, konpaktatu, soinua jotzen jarraitzeko. Aupa Egurrola! 🍷



Soziolinguistika

Jaime Altuna Ramirez

Udaberria

Alpargatak eta zapatak urratu asmorik gabe abiatu gara Larrauldik. Tontorrerako bidean, kukuaren kantu ozenak negua atzean geratu dela adierazi digu. Apirilaren bigarren eguna da. Aurtengoan, beraz, kukua puntual etorri da eta txiolari euskaldunak kukuak jo diela zabaltzen hasiak dira: balio al du dirua motxilan edukitzeak? Txanponak eskuineko ala ezkerreko zorroan eraman behar dira? Kreditu txartelarekin efektu bera al du?

Aspalditik dator kukuaren lehen kantuari erreparatzeko ohitura. Izan ere, garai batean uda eta negua ziren bereizten ziren bi urtaro nagusiak, eta batetik bestera trantsizioan baziren mugarriztat hartzen ziren zenbait data. Horietako bat Ama Birjina Martxoko eguna zen, eta egun horretatik aurrera kukuaren kantuari adi egoten ziren, hark adierazten baitzuen negu garaia amaitzen ari zela eta lur soroak esnatzen hasiak zirela.

Kukuak ez jotzea etorkizun makurraren seinalea zen: uda berririk ez. Kukua denboraren ikur. Bizitza berriaren pregoilari. Udaberriarekin batera etortzen da eta udaberri amaieran isiltzen da.

Kukutik kukura. Ama Birjina Martxoko egunetik San Pedro egunera. Edo, razionalago azaltzea nahiago baduzue, martxoaren 25etik ekainaren 29ra. Data horietan zehar ibiliko naiz hurrengo lerroetan, udaberria deitzen zaion garaiaren kronika ekosoziolinguistiko moduko bat josi nahian.

Kantatzen ez dakien txoria

Kukuak ez kantatzeak udaberririk ez etortzea esan nahi zuen. Natura zoratzea. Bizitzaren zikloa aldatzea. Aurten, ekosistemaren aldaketa horietako bat erakusten duen notizia batekin esnatu gara udaberriko lehen egunetan. Euskadi Irratiko esatariak kantatzen ikasten ez duen txori espeziearen berri eman digu. Ross Crates eta Naomi Langmore ikertzaileek Australiako ezti-txoriaren (*Anthochaera phrygia*) inguruko ikerketa egin dute, eta txori mota horren populazioa murrizten ari dela ikusi dute. Hori bere horretan ez litzateke notizia, zoritxarrez galzorian dauden espezieak asko direlako, baina ezti-txoriaren kasuak badu bitxia egiten duen zer bait.

Ikertzaileek ikusi dute espezie horretako txori gazte askok ez dutela ondo kantatzen: behar bezain konplexua den kanturik ez dute egiten edo beste espezie batzuen kantaera dute. Horrek ugalketan ondorioak ditu, kanta atipikoak kantatzen dituzten txori horiek aukera gutxiago baitute ugalketarako, eta, ondorioz, populazioaren jaitsiera gertatzen da. Gainera, populazio murrizte horrek kantaera egokiaren ikasketa prozesua zailtzen die txori gazteei. Ikerketan ondorioztatu dute ahots-kulturaren galerak ezti-txoriaren galzoria ekarri dezakeela, eta aspaldiko leloarekin gogoratu naiz: «Kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko». Hala da, baina, Australiako ezti-txoriarekin gertatzen ari dena aintzat hartzen badugu, bizirik jarraitzeko, abestea bezain garrantzitsua da kantaera mantentzea.

Euskarianen basoa

Kuku txitak gure basoetako txantxangorri edo kaskabeltzen habietan handitzen ari diren egunetan, natura eta euskara lotzen dituen artikulu iradokitzaile baten berri jaso dugu. Dylan Inglis eta Unai Pascual ikertzaileek ‘On the links between nature’s values and language’ (Naturaren eta

hizkuntzaren balioen arteko loturei buruz) izenburua duen artikulua argitaratu dute *People and Nature* aldizkari zientifikoan, eta Pascualek ikerketa azaldu du *Elhuyar* aldizkarian egin dioten elkarrizketan.

Aezkoa, Garazi, Zaraitzu eta Zuberoako ibarretako hainbat lagunekin egindako elkarrizketa eta talde eztabaiden bidez ikusi nahi izan dute ea perfil soziolinguistikoek harremanik ba ote duten natura balioztatzeko moduarekin. Horri begira, naturaren balioak hiru multzotan bereizi dituzte. Batetik, balio instrumentalak eta horiei lotutako diskurtsoa dugu, «naturak gizarterako edo pertsonentzako sortzen dituen baliabideez hitz egiten duena, ekonomiaren filtrotik pasata (lanpostuak sor ditzakeela, turismoa sustatu...)». Bestetik, biologiatik datorren diskurtsoari lotutako balio intrintsekoak ditugu, naturak berez duen balioa azpimarratzen dutenak eta «natura zaintzeko erantzukizun-sentsazio handi baten esku-tik» datozenak. Azkenik, naturarekin dauzkagun harreman emozionalekin lotutako balioak daude: harreman-balioak.

Ikerketan basoa hartu dute eredu gisa, eta horrekiko aipatzen diren balio guztiak aztertu dituzte: instrumentalak, intrintsekoak eta harreman-balioak. Ikusi dute hiru perspektiba nagusi azaltzen direla, eta pertsona bakoitzean maila desberdinean ageri direla. Lehen perspektiba *Zaintzaileena* litzateke. Bertako basoa ondo ustiatzeko beharra eta ardura azpimarratzen dute, garrantzi ekologiko eta sozial handia duelako komunitaterako eta hurrengo belaunaldientzako. Ikuspegi hori laburbiltzen duen esaldi bat honako hau litzateke: «Lehen-tasuna basoa zaintzea da, gero [bigarrena] basoaz bizitzea».

Topatutako bigarren perspektiba nagusia *Eudaimonia* izendatu dute. Ikuspegi horrekin bat egiten dutenentzat, basoa oinarrizko elementua da euren bizitzetan. Balio hori hone-lako esaldiekin adierazten dute: «[Basoaren] parte banintz bezalakoa da... sentimendu sinestezina», edo «Basoa nire energia da».

Hirugarren ikuspegiak, *Euskarian* perspektibak, bereziki azpimarratzen du tokiko basoen eta euskal kultura eta

hizkuntzaren arteko harremanen garrantzia. Perspektiba horren baitan, harreman-balioen garrantzia agerian geratzen dela uste du Pascualek:

Ikuspegi hau azaleratu duten pertsonak bizi diren tokiarekiko atxikimendu indartsua dute, kultur identitatearekin oso erlazionatuta dagoena; eta basoarekiko balio harreman-mota hauek, euskararekin dute zerikusia. Alde batetik, ezin dute bereizi bertako basoa eta natura, bere kultur identitateak eta tokian tokiko haien atxikimendutik. Eta euskara bitartekari bat da guzti horretan, euskarak baldintzatzen du tokian tokiko atxikimendua, kultur identitatea eta naturarekiko atxikimendu hori.

Berria egunkarian ikerketari buruz egindako erreportajearen, Inglisen ondorioak jaso dituzte. Bristolgo Unibertsitateko ikertzailearen ustez, naturaren balioen eta euskararen artean lotura bat dagoela frogatu dute, eta hori bi noranzkotan gauzatzen da. Batetik, euskara garrantzitsua da naturaz gozatzeko: «Jende multzo honek esan zigun basoaz euskarazko leku izenen bidez disfrutatzea oso garrantzitsua zela». Eta, bestetik, aztertutako eskualdeetan natura garrantzitsua da euskal nortasunarentzako.

Aroztegia

Ekologia tartean dagoen eztabaidetan, etengabeko dikotomia bat sortzen da balio instrumental eta intrintsekoen artean. Halakoetan harreman-balioak ere ekuazioan sartzea komeni dela uste du Unai Pascualek, hau da, naturarekin dauzkagun harreman emozionalak beharrezkoak direla auzi horiek ulertzeko eta gainditzeko.

Gatazkatsuak diren adibide asko izan ditugu eta ditugu euskal lurretan, eta udaberri honetan Baztan bihurtu zaigu horrelako auzi baten epizentroa. Lekarozen turistentzako 228 etxebizitza, golf zelaia eta luxuzko hotela eraikitzeko Aroztegia izeneko proiektu urbanistikoaren obrak hasi bezain pronto, bertan behera utzi behar izan dituzte. Apirilaren

erdialdean herritar talde bat hondeamakinen aurrean paratu zen. Bi astez akanpatuta egon ziren bertan, makroproiektu urbanistikoa eraikitzeko makinak eraman zituzten arte.

Aroztegikoa aspalditik datorren eztabaida da, eta balio instrumentalak zein intrintsekoak oso argi ageri dira erabili izan diren argudioetan. Duela bost urte *Erran.eus* agerkari digitalak jaso zituen Baztango udal ordezkarien iritziak horren isla dira. Hona instrumentalizazioaren diskurtsoaren adibide batzuk:

Lanpostuak sortuko ditu, bai proiektua martxan dagoenean eta baita eraikuntza prozesua gauzatu bitartean. Honek Baztandareri aukerak irekitzen dizkie, bertan lan egin eta bizitzeko.

Industria aski garbia da eta gure ingurumenarendako egokia.

Landa-eremu bati balioa emanen dion proiektua da.

Bidaia-agentzia aunitzetan Baztan lehentasunezko helmuga bihurtuko da.

Eta hona hemen balio intrintsekoekin lotu daitezkeen argudio batzuk:

Lur emankorrak artifizializatzen ditu, lur-azpiko urak alferrik erabiltzen eta kutsatzen, mugikortasun motorizatua handitzen.

Ez dugu guk gure arbasoengandik mundua heredatu, baizik eta maileguan edo prestatuta hartzen ari gara gure seme-alabentzako. Hau horrela izanik Aroztegiko proiektuko urbanizazioak topo egiten du jasagarritasunarekin.

Ez ditut harreman-balioak adierazten dituzten argudioak topatu, baina azken asteetan izan dira euskararen aldagaia ekuazioan sartu dutenak. Euskal Herrian Euskaraz erakundeak «Euskarak herria eta lurra behar ditu, proiektu txikitzailezik ez! Aroztegia gelditu» leloa duen afixa zabaldu du, eta Jon Alonsok eta Txerra Rodriguezek artikulu bana idatzi dute *Argia* aldizkarian. Honela amaitu du Rodriguezek:

2021. urtea, Lekaroz, Baztan. Aroztegia izeneko hirigintza proiektu basatia martxan jarri nahi dute. Luxuzko etxebizitzak, hotela eta golf zelaia [...] Eta inork gutxi egiten du berba horrek izan

dezakeen inpaktu linguistikoaz (bestelako inpaktuez gain, jakina). Eta, bitartean, lurraren defentsan, herritarrak [...] Historiaren orrialde hau ez dago oraindik idatzia eta, hein batean, gure esku dago. Muina lurra eta euskara dela ahaztu barik. Orduan eta orain eta gero. Lurra eta hitzunok.

Euskal Pirinioetan Pascualek eta Ingliseak naturari atxikitzen zaizkien harreman-balioek euskararekiko harreman emozionalarekin zerikusia dutela ikusi dute, eta jasotako datuetan nabarmendu dute euskararen eta naturaren arteko lotura gehien egin dutenak hegoaldeko ibarretako gazteak izan direla. Aroztegia proiektuaren aurka ere gazteak ikusi ditugu, eta Elurre Iriartek 'Ikastaro trinkoa Aroztekin' artikuluan kontatu du kanpaldian euskara hutsean funtzionatu dutela, euskara erdigunean paratu dutela. Pascualen ustez, hizkuntza minorizatuaren defentsa eta atxikimendua instrumentu ahaltsuak izan daitezke planetaren jasangarritasunerako. Hizkuntzaren aldagaia ekuazioan sartzeko garaia da, beraz.

Babesten gaituen lekua

Ama Birjina Martxoko eguna baino lehen irten zen Rocio Basterra del Valle Iturria argentinarra Viedma herritik. Kukuak bezala, garaiz iritsi behar zuen Euskal Herrira, eta, erraza izan ez bazen ere, apirilaren 8an Baionako Etxepare Lizeora ekarri zuen *Bizi gira... kutxa bira!* ekimenaren kuxta. Patagoniatik Baionara eta Baionatik Euskal Herriko 70 bat herritatik igaro da, Segurara maiatzaren 30ean iritsi arte. Rocio Basterrari euskara zer den galdetu diote *Kazeta* hedabidean: «Euskara babesten nauen leku bat da», erantzundu. Ikuspegia aldatzeko esaldi polita iruditu zait. Askotan, euskara babestu behar dugun zerbait dela esaten dugu. Baina, agian, alderantziz da: euskarak (ere) gu (kolektibo gisa) babesten gaitu.

Larrialdi klimatikoaren aurrean eta hizkuntzen desagertpenaren aurrean, estatu elebakar neoliberalak ez gaituzte

babestuko. Argi ikusi dugu hori aurtengo udaberrian Madril eta Parisen menpe dauden epaitegiek erabakitakoekin: Bidasoko alde batean, eskolan euskara ikastea konstituzioaren kontrakoa dela esan digute; beste aldean, herritarren zerbitzura lana egiteko euskara eskatzea legearen aurkakoa dela. Yayo Herrero antropologoak dioen bezala:

Ohiko ekonomiak eta haren adierazleak mundu fisikoaren gainean hegan dabilta, baina ez dira konturatzen mundu hori abiadura handiz hondatzen ari dela, edo, are okerrago, haren sunsi-pena aberastasunaren hazkundera balitz bezala ospatzen ari dira.

Hitz gutxi batzuk aldatuta, antzeko hausnarketa egin zitekeen hizkuntzen arloan. Hortaz, elkar babesten jarraitu beharko dugu, eta euskara eta gainontzeko hizkuntza gutxituak izan daitezke mundu justu eta jasangarria osatzen lagundu dezaketen tresnak. Gure kantaera ahaztu ez dadin, eta, gure kantuen bidez ere, hil edo biziko mundu mailako erronkei aurre egiteko.

Udaberria joan da. Kukua isildu da. Baina udan izango dugu gai horien inguruan hausnartzen jarraitzeko parada *Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundera beste biderik bada?* izenburua daraman Jakin Jardunaldian. 🌱



Glokalia

Iñigo Martínez Peña

Jasango genuke bizitza ez bagenu amaieran sinistuko?

Jacques Lacan

Ez zaitez hil!

Hilezkortasunaren gaia erlijioari lotuta egon da historian zehar, baina XXI. mendean ez dago pertsona erlijiosoen ahotan soilik: ingeniariak eta informatikariak ere bereganatu dute. Aurrerapen teknologikoen bidez giza muga guztiak gaindituko direla pentsatzen dute askok. Oxfordeko Nick Bostrom irakasleak, adibidez, pertsona eta makinaren arteko fusioa aurreikusten du 2050erako. Ganorazko zientziari buruz ari gara, edo zientzia fikzioa baino ez da? Hilezkorra izango ote dira etorkizuneko giza ziborg berriak? Horixe da transhumanisten ustea, eta mugimendu ekonomiko, teknologiko zein ideologiko horren jarraitzaileek alderdi politikoa eta guzti sortu dute. Zertan datza euren programa? Hilezkortasunaren aldeko ikerketek lehentasuna hartzea eskatzen diote Ameriketako Estutu Batuetako gobernuari, NBIC (Nano, Bio, Informatika eta Kognitibismoa) proiektuan ari diren enpresa erraldoiei diru-laguntza gehiago emanez. 2016ko hauteskunde kanpaina hamabi metroko hilkutxa formadun autobus erraldoi batean burutu ondoren, ekitaldi nagusia Microsofteko campusean ospatu zuten: Silicon Valleyren lurraldea, hain zuzen. Izan ere, transhumanismoarekin liluraturik dauden pertsona gehienak Silicon Valleyn kokatzen dira: Kalifornian omen dago gaur egun Berpizkundeko Mediciren Florentzia. Bertako enpresariei bereziki gustatzen zaie gazte itxura erakustea, eta janzkera informaleko

uniformea daramate: zapatilak, *hoodies*-ak, kamisetak..., garai bateko trajea eta gorbata alboratuta. Eta, hala ere, itxura eskasa daukate horietariko askok, zombien antzekoa. Baina euren burua munduko salbatzaile berri gisa aurkeztea dute gustuko, superheroiak omen dira. Ziborg hilezkorrena izango ote da superheroien eredu berria? Transhumanistek lehen hauteskunde kanpaina Washingtongo kongresuan amaitu zuten, ‘Ziborgen eskubideen deklarazioa’ irakurriz. Bertan adierazi bezala, etorkizunean ziborg-arraza hipergaratu estatubatuarrak planeta gidatzea espero dute. Datorren ustezko munduan humanoak eta transhumanoak egongo lirateke, batzuk besteak baino garatuagoak; eta nazioa, noski, ezin da atzean geratu. Hilezkortasunak definituko ditu klase sozial berriak?

Bitartean kriogenia, zizareak edo txipak

Dmitri Itskov eta Peter Thiel, mugimendu transhumanistaren aldeko errusiar eta alemaniar milioidunek, erretorika mesianikoa darabilte: «Heriotza hil behar dugu! Laster 500 urte biziko dituen pertsona jaioko da!». Heriotzaren aurrean hiru jarrera orokor omen daude: ukatu, onartu edo bere aurka borrokatu. Azken horiek heriotza gainditzeko eta borrokatzeko prest daude. Bitartean, formula definitiboa eskuratu arte, aberatsei kriogenia eskaintzen zaie: hildako gorpua izoztuta mantentzea, egunen batean eta teknologiari esker behin betiko berpizteko. Izozketarako prezio eta aukera ugari daude: gorputz osoa, 200.000 dolar inguru; burua bakarrik, 80.000. Zaila dirudi osasuna eskubide unibertsal gisa defendatzea eta merkatuaren legeetatik babestea inbertsio pribatu eta hilezkor horren barruan. Pandemia hasieran ikusitako Madrilgo Izotz Jauregiko irudi dramatikoak kriogeniari kontrajarri dakizkioke.

Hilezkortasunaren inguruko ikerketekin, hala ere, erabat eszeptiko dugu Éric Sadin frantziar pentsalaria. Haren

eszeptizismoa galdera honetan oinarritzen da: nor dira mugimendu transhumanistaren ikerketa gidatzen duten pertsonak? Puntako medikuak? Biologo bikainak? Inondik ere ez: datuen kudeatzaile eta Interneteko enpresen buruzagiak dira, eta, jainko ahalguztidunak direla pentsatzeaz gain, bizitza bera zifretara eta datuen arteko korrelazioetara murriztu nahiko lukete. Ikerketetan, oro har, hiru bide nagusi proposatzen dira: 1) zelulen zahartze-prozesua geldiaraztea, 2) giza kontzientzia makina batean txertatzea, 3) bihotz, giltzurrun edo gibel robotiko artifizialak transplantatzea. Azter ditzagun.

Batetik, zelulen zahartze-prozesua geldiarazteko, kromosometako telomeroak luzatu nahi dituzte: antza, zahartu egiten gara telomeroak txikitzen doazen heinean. Googlek, adibidez, 2013an Calico (California Life Company) fundazio bioteknologikoa zabaldu zuen, zahartze-prozesua geldiarazteko asmoz. Oraingoz ez dago emaitza askoren berririk: porrotaren seinale edo ondo gordetako enpresa-sekretua ote da isiltasun hori? Galderaren erantzuna ez da batere erraza, egungo jakintzaren pribatizazioa dela-eta, jendartearen ongizatea beharrean irabazi pribatuak baitaude jokoan. Nork erosi ahal izango du Googlek bideratutako medikuntza hiperpersonalizatua? Momentuz, dena den, zizare baten bi-zi-itxaropena luzatzea baino ez dute lortu; hala adierazi dute Calicoko zuzendariek.

Mediku eta biologo askok, hala ere, ez dute ikerketa horrekin bat egiten. Zergatik? Zahartze-prozesuaren konplexutasuna kausa bakarrekoa dela uste izatea guztiz erredukzionista delako. Horrelako ikerketak ingeniariaren ikuspegi sinplisten ondorio direla uste du, adibidez, Israel Nisand bioetikako europar foroaren sortzaileak. Telomeroak luzatzeko arratoiekin egindako probek, oraingoz, minbizia baino ez dute eragin.

Hilezkortasuna lortzeko beste aukera posiblea gure kontzientzia txip batean sartu eta beste gorputz-makina batean piztea litzateke. Gure oroitzapenak, gure munduarekiko pertzepzioak eta gure desirak batzen dituen txip betean pilatzeko asmoa. Kontzientziaren eta burmuinaren konplexutasuna era

sinpleegian ulertuta berriro ere? Burmuina haragizko makina, haragizko konputagailu edo kalkulagailua delakoan ari dira ikertzen. Giza burmuina metaforizatzeke era, ikerketaren abiapuntua bera, zalantzarria izan daiteke, erratuta egon. Baina, zalantzak zalantza, batzuek etekin komertzialerako aukera paregabea aurreikusi dute, umeak hildako gurasoekin harremanetan jarritz. Nola? Gurasoen datu astronomikoak pilatu, eta WheChat moduko aplikazio digitalen bidez, bizi-rik egongo balira bezala seme-alabekin ustezko elkarrizketak bideratuz. Zer-nolako harreman motak irudikatzen dituzte horrelako aplikazioek? Nolako solasaldiak sortuko dituzte? Umeek algoritmoen erantzun mekanikoak jasoko dituzte, galdetutakoaren edo esandakoaren arabera. Egun batean, ordea, nagusi egingo dira, bizipen berriak izango dituzte..., eta guraso-aplikazioa ez da ezertaz jabetuko.

Edo bitartean heldu eskutik. Nartzisismoa ala zaurgarritasuna partekatzea?

Zelan ezabatu daiteke denboraren marka eta misterioa giza harremanetatik? Zelan eten bizipenen joan-etorria? *Panta rei, tempus fugit...* Nora doa izan zena? Non dago izan ginen haurra, izandako nerabea? Ez ote dira zentzu batean jada hil? Izan ginena, garena, izango garena... Identitatea beti ihesean dabil, jariatasunean, Heraklito zaharraren ibai berrian. Bizitza eta heriotza elkarri lotuta doaz bertan, korapilatuta.

Misterioa da, beraz, bizitza; misterioa, heriotza. Ez dakigu. Sokratesek hala zioen heriotza-zigorrera kondenatu zutenean, eta epaileei jakintsu plantak egitea leporatu zien: «Gaitz handi batekin zigortzen nauzuela uste duzue, baina ez dakigu heriotza gaitza ote den». Jakin badakigu, ordea, injustizia gaitza dela; horregatik, justizia falta ekidin behar dela zioen.

Filosofia modu askotara saiatu da heriotza ulertzen, edo heriotzari aurre egiten. Eskola helenistikoek, adibidez, heriotza onartzeko botikak izan nahi zuten. Gogora ditzagun

Epikuroren hitzak: «Heriotza ez da ezer guretzat; gu gaude-
nean bera ez baitago, eta bera dagoenean gu ez baikaude».
Edo bera edo gu, ez dugu kointziditzen.

Zer da orduan heriotza? Erabateko alteritatea? Ni ez naizen
hori, zerbait erradikalki bestelakoa. Horrela ulertuta, hilez-
kortasunaren aldeko borroka niaren aldeko borroka litzateke,
niak bere horretan irauteko egiten duen erabateko ahalegina.
Egarri nartzisista ote da hilezkortasunaren egarria? Hala dio
Byung-Chul Han filosofoak *Heriotza eta alteritatea* idatzian:
heriotzak ni ahalguztidunaren amaiera dakar, inpotenziaren
erakusgarria da.

Eugène Ionescoren *Erregea hiltzen ari da* antzezlanean,
erregea hiltzorian dago. Desesperazioan, aginduak etenga-
be ematen ditu: «Zuhaitzetako hostoak haz daitezela agin-
tzen dut! Euria egin dezala agintzen dut!...». Baina alferrik.
Ohean etzanda, azken agindu bat ematen dio, oraindik ere,
bere menpekoari: «Hil itzazu hormako bi armiarma horiek,
ez dezatela nik baino gehiago biziraun!». Heriotzaren kontra-
ko erresistentziak eta botere-nahiak bat egiten dute. Azken
momentura arte agindu nahi du. Erreginak, aldiz, maitatzea
eskatzen dio, maitasunak heriotza gainditzeko boterea dau-
kalako, besteengan biziko delako. Bere nia askatzeko azken
erregua egiten dio errege jaunari. Baina erregeak ezin du.
Gehienez ere maitasun nartzisista bat erakutsi ahal izango lu-
ke: den-dena naiz ni; ni naiz mendiak, ni eguzkia, ni izarrak.
Sentimendu ozeaniko horren maskaran, niak kanpoko mun-
dua bereganatzen du, baina ez da alteritatean galtzen. Gaine-
ra, den-dena, unibertsoa bera nia bada, zaborra ere kontuan
hartu beharko genuke, ezta? Hori da Enrique Vila-Matasek
dakarren ironia: horrelako poetizazio ozeanikoetan ez dira,
normalean, bestelako *osotasun* identitarioak erabiltzen: ni
naiz labezomorroak? Ni tutueriak? Ni burdinzuri potoak? Ni
McDonald'seko hanburgesak? Nahiago dut Jon Gerediagaren
poemetan naturari abesteko era, lokatzez betea, argi-ilunez
betea. Bertan ez dago naturaren idealizaziorik, alteritatearekin
solasean ari dira bere kantuak *Natura berriak* liburu ederrean.

Kontuak kontu, Byung-Chul Hanen kritikari berriro helduz, finko mantentzea da niaren desira ezkutua, aldaketa eta metamorfosi guztiak gaudituz: ni zurruna, momifikatua, hipertrofiatua mantentzea. Baina hilkorrak garela onartzeak, Hannah Arendten hitzak gogora ekarriz, denbora opari bihurtzen du, jaiotzak eta heriotzak egiten gaitu pertsona. Mundura gonbidatuak izan gara, mundu honetan sekula ez gaude guztiz *etxean*, eta, agian, zauri hori presente izateak, hilkor kondizioa partekatzeak, gure artean adeitsuago eta adiskidetsuago egin gaitzake. Zaurgarritasunaren eskutik helduta goaz.


Koronabirusaren marka

Transhumanismoak gaixotasuna, zahartze prozesua eta heriotza ukatu nahi ditu: noizbait lortuko da bizitza eternoa? Ez du ematen, eta are gutxiago 2020ko koronabirusaren hedapenaren adibidea ikusi eta gero. Birusak gogor jo du Ameriketako Estatu Batuetan, transhumanismoaren lurraldean, munduko potentzia ekonomiko horren osasun sistema publikoaren ahulezia agerian utziz.

Pandemia aurretik, Santiago Alba Ricok zioen moduan, «hilezkortasuna zalantzarik gabeko eskubidetzat geneukan europar zuriek». Baina gaixotasunak pertsonon hilkortasuna, ezjakintasuna eta hauskortasuna gogorarazi dizkigu lehen munduko biztanleoi (askok oso presente bazeukaten ere).

Hilezkortasuna ametsa, ameskeria edo amesgaiztoa ote da? Hilkorrak garela ukatu daiteke? Nahiago genuke ez jakin? Freuden arabera, giza sufrimenduak hiru iturri nagusi ditu: katastrofe naturalak, gorputzaren gaixotasunak eta bestee-kiko harremanak. Hiru muga. Gure gorputzarekiko harremana ez da kontu erraza, askotan matxinatu egiten zaigu eta ezin dugu menperatu. Askotan ere ez gara gure irudiarekin ondo konpontzen. Baina gorputz batean bizi gara eta bere mugak onartzea hobea. Mugen barruan ere, aukera polit asko ematen ditu!

Azken aldian asko entzun izan da negazionismoari buruz, jarrera ukatzaileei buruz. Eta zer da, finean, ukatu nahiko genukeena? Uste dut, oro har, gure hauskortasuna ukatzeko joera daukagula; bakoitzak berea, bakoitzak bere modura. Baina ukatu nahi dugunak giza izaera bera ukatzera eramaten gaitu. Eta aldrebes egingo bagenu? Hauskor izateko modua partekatuko bagenu? Hori izan daiteke gorrotoaren aurkako antidotoa. 🍷



 euskadi
irratia
gertu

JAKIN 2017

Jakin 218

ALEGRIA, Oskar: *Filipe Oihanbururi elkarrizketa*
ALVAREZ BERAESTEGI, Amaia: *Justizia trantsizionala Euskal Herrian*
Egunen gurpilean: ARTETXE, Miren; GALARZA, Henrike; RODRIGUEZ, Txerra;
DIAZ BIZKARGUENAGA, Koldo; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 219

ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Humboldten euskal nazioaz*
AZURMENDI, Haritz: *Naziogintzaren ataka berria. Estaturik gabeko naziogintza eta naziorik gabeko estatugintza*
ZABALO, Julen; ODRIOZOLA, Onintza: *Eredu aldaketa euskal nazionalismoan?*
LASAGABASTER, Iñaki: *Autogobernuaren teoria eta praktikari buruzko hausnarketa*
Egunen gurpilean: ARTETXE, Miren; GALARZA, Henrike; RODRIGUEZ, Txerra;
DIAZ BIZKARGUENAGA, Koldo; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 220: Umorea politikoa da

ARANBARRI, Iñigo: *Umorearen zimurrak*
ANDUAGA, Uxo: *Umorearen sarrailez eta giltzez*
ITURRIAGA, Unai: *Zenbait ohar umorearen gainean*
MINTEGI, Laura: *Umoreak ez die graziarik egiten*
ZUBIAGA, Mario; ARANA, Edorta: *Tirabirak: euskal gatazka binetetan*
Egunen gurpilean: ARTETXE, Miren; GALARZA, Henrike; RODRIGUEZ, Txerra;
DIAZ BIZKARGUENAGA, Koldo; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 221-222: Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean

AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: *Gorputzen elkargunea, bizi dugun lurraldea*
ESTEBAN, Mari Luz: *Ikuspegi feminista maketoa eta euskaltzalea herritartasun berri baten alde*
AIESTARAN, Ignazio: *Klase sozialei buruzko zenbait ohar historiko: Marxek irekitako bidea*
REIMÓNDEZ, María: *Deszentratzen duten hizkuntzak*
GANDARIAS, Itziar: *Aliantzak, aniztasuna eta horien arteko elkarguneak*
BARQUÍN, Amelia: *Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan. Zenbait gogoeta*
ELSER, Petra: *Iruditeria kolektiboaren beharra*
KARIM, Tarana: *Ez hemengoa eta ez hangoa*
CHALAMPUENTE, Jessica: *Hizkuntza eta identitateari eutsi nahian*
DIOP SECK, Aminata: *Kultura berriak bizitzeko aukera*
Egunen gurpilean: ARTETXE, Miren; GALARZA, Henrike; RODRIGUEZ, Txerra;
AIESTARAN, Ignazio

Jakin 223: Euskal kultura 2017

BEOBIDE, Olatz: *Amaia da hasiera*
RUBIO, Miren: *Dantzan jarraitzeko. 2017ko iruditeriaren arrastoan zenbait adibide*
UGARTE, Itziar: *Zuloaren luizia*
MINER, Kattalin; AXPI; IRIGOIEN, Aritz; ESKISABEL, Jon; RETOLAZA, Iratxe;
ADUR; EXPRAI; BARCENILLA, Haizea; PEREZ, Galder; PALLÉS, Diego;
GOÑI, Maialen; GALLEGO, Patxi; LANDABIDEA, Xabier: *Euskal kultura 2017*
BARANDIARAN, Alberto: *Euskal hedabideak, etorkizun bila*

JAKIN 2018

Jakin 224

GURRUTXAGA URANGA, Amagoia: *Argitxu Noblia Richardi elkarrizketa*
AIRE, Xan: *Hezkuntza eta Hizkuntza: osotasun baten bila*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 225: Euskara batuak 50 urte

AGIRRE DORRONSORO, Lorea: *JAKIN, euskara batuari bide egiten*
TORREALDAI, Joan Mari; INTXAUSTI, Joseba; AZURMENDI, Joxe;
AGIRREBALTZATEGI, Paulo: *Jakin Talde historikoa: euskara batuaren memoria*
eta etorkizuna
ARRARATS, Irene: *Batuaz honaindikoak*
GARTZIA, Pruden: *San Ignazioren martxa-ren aroa. Zirriborroa euskara batuaren*
historia intelektualaz
ASKOREN ARTEAN: Iritzi bilketa: *Euskara batuaren ekarpenak eta erronkak*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 226: Kulturaren kontsumoa

ALLUR DORRONSORO, Juanjo: *Argazkia euskarazko kultur kontsumoari*
SORS, Joxemari: *Merkatuaren mugak agerian*
AMEZAGA, Josu: *Euskarazko kulturaren kontsumoa ulertu nahirik*
ITURBE, Arantxa: *Lau, bat, hiru, bost, zazpi*
ARRESE, Gorka: *Ardurari buruz*
OSA, Olatz: *Argazki bat album polifonikorako*
TORREALDAI, Joan Mari: *Euskal liburugintza 2016*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 227-228: Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila

GARMENDIA LASA, Elixabete: *Mende erdi utopia gurean*
AGIRRE DORRONSORO, Lorea: *Utopien atzetik ibilian. Amaia Lasari elkarrizketa*
GARMENDIA, Alba: *Ezaren gudaz baietza sortuz. Utopia klasikoa eta berria*
APODACA, Eduardo: *Praxia: pragmatismoa eta utopia elkartzen diren tokia*
ABOITIZ HIDALGO, Uzuri: *Zaintza erdigunera? Aukerak, mugak eta zenbait galdera*
AGIRRE DORRONSORO, Lorea: *Zaintzaren aldeko borroka. Begoña Zearretari*
elkarrizketa
BARCENA, Iñaki: *Ekosozialismo feminista, utopia berri bat?*
AGIRRE, Anaiz; HARLUXET, Xabier: *Utopiatik... alternatibara*
AGIRRE DORRONSORO, Lorea: *Harrera herria helburu. Begoña Huarteri*
elkarrizketa
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; AIESTARAN, Ignazio

Jakin 229: Euskal kultura 2018

IEREGI, Izaro: *Gorpuzkera anormalak, behartuak eta groteskoak*
COLINA, Sustrai: *Kultura eguneroko bizitza delako*
ARBELBIDE, Nora; BARANDIARAN, Alberto; TXAKUR GORRIA; ADUR;
BERRIOZABAL, Maite; GANTZARAIN, Xabier; AXPI; FANO, Dani; ARRUE
UNANUE, Ines; PALLÉS, Diego; GUILLAN, Oier; EIBAR, Eider; IPARRAGIRRE,
Peru; EROSTARBE, Gorka; ESTEVEZ, Paula: *Euskal kultura 2018*
ARRULA RUIZ, Garazi: *Norbere buru-gorputza ezagutzeaz*

JAKIN 2019

Jakin 230

RUBIO ITURRIA, Miren: *Jose Ramon Etxebarriari elkarrizketa*
LARRAÑAGA ARRIOLA, Jexux: *Neurozientzien diskurtso eragina hezkuntza-kulturan: liluratik harago*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 231: Bertsoari neurria hartzen

ZUBIRI, Harkaitz: *Kulturgintzari begiratzeko betaurreko berriak. Bertsolaritzatik ikasten*
HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone M.: *Hutsuneak du hitza*
RUBIO ITURRIA, Miren: *Bertsoari neurria hartzen. Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 232

AIZPURU, Alaitz: *Txillardegi, postmodernitatea eta postkolonialismoa*
ORMAZABAL, Andere: *Herri mugimenduak eta ezkerreko gobernua Gipuzkoan*
DITXARRI, Eric: *Euskal raparen hausnarketa antropologiko historikoaren hazia*
ARGARATE, Lorea: *Musikaren denbora makina*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 233-234: Maitasuna politikoa da / Joxe Azurmendiren pentsamendua

AGIRRE DORRONSORO, Lorea: *Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago da*
ESTEBAN, Mari Luz: *Maitasuna erdigunetik kanpo. Maitasun-ideologia arrotzeko dekalogo*
BASABE GUTIERREZ, Zalao: *Amatasunaren politizazioa: atzo, gaur eta bihar*
RUIZ MENENDEZ, Oihane: *Maitasunaren ideologia eta hirigintzaren arteko lotuneak*
MOGOLLON GARCIA, Irati: *Zaintza arkitekturei hurbilpena*
MILIKUA LARRAMENDI, Leire: *Arkitektura eta sexualitatea*
IRURETAGOiena BUSTURIA, Ula: *Kultura afektiboaren arkitektura*
ARRAZOLA MAIZTEGI, Jone: *Emakumeak errekadutan: kalea eta elkar babesteko sareak ehuntzen*
SALBOTX ALEGRIA, Nora: *Haurrak herriak eraikitzen*
MINER AGINAGA, Jone: *Espazio publikoa eta giza harremanak*
ABARASKA ETXEBIZITZA KOOPERATIBOA: *Etxebizitza eredia auzitan jartzen*
AZURMENDI ARRUE, Haritz: *Joxe Azurmendiren abertzaletasun kulturala*
Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 235: Euskal kultura 2019

URBIZU RUIZ, Gorka: *Okeyish*
BARANDIARAN AMILLANO, Alberto; RUBIO ITURRIA, Miren; IPARRAGIRRE, Peru; OLARIAGA, Antton; TXAKUR GORRIA; ARTETXE ARANAZ, Eneritz; PALLÉS, Diego; JOSEVISKY; GAZTELUMENDI ARANDIA, Beñat; SAMPEDRO ALEGRIA, Aiora; RODRIGUEZ MARTIN, Arrate; PALACIOS EGIGUREN, Leire; LEKUONA IZAGIRRE, Loinaz; GANTZARAIN ETXANIZ, Xabier; EIBAR ZUGAZABETIA, Eider; GOÑI BALENTZIAGA, Maialen; UNANUA OTXOANTEZANA, Nerea; MIMENZA CASTILLO, Libe: *Euskal kultura 2019*
TORREALDAI, Joan Mari: *Euskal liburugintza 2017*

JAKIN 2020

Jakin 236

AMURIZA, Miren: *Xabier Amurizari elkarrizketa*

RUBIO, Miren: *H. Cano, E. Rodriguez eta K. Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz Egunen gurpilean*: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 237-238: Joxe Azurmendi. Pentsamenduaren ur-jauzia

ZULAIKA, Joseba: *Arbola beltzaren poema*: Azurmendi, euskal mende hautsiaren lekuko

ESKISABEL, Idurre: *Feminismotik naziogintzara hurbilketa bat*: Azurmendi bidelagun

APODAKA, Eduardo: *Mamu, momia eta zonbiak*. Bizi osteko biziak

SARRIONANDIA, Joseba: *Azurmendiren inguruko sei-zazpi ideia eta galdera*

OLARIAGA, Andoni: *Nola pentsatu etika orain eta hemen?*

CUGNO, Agnès: *Indarkeria eta identitate politikoa*

SOTO, Iñaki: *Don't Think of 'Foro de Ermua'*

CASADO, Antonio: *Pentsamenduaren marruskadura*: etika eta praktika komunitateak

NEREKAN, Maitane; YARZA, Itsaslore: *Heriotzarekin bizitzen ikastea*

ZAPIAIN, Markos: *Bizitzaren zentzuaz*

ETXEBERRIA, Arantza; PZ. IGLESIAS, J. Ignacio: *Gizaberea, eboluzioa eta kooperazioa*

URDANGARIN, Mikel: *Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa*

EIZAGIRRE, Andoni: *Pertsona burujabea*: Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean

AZKARATE, Miren: *Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki*

MARTINEZ, Elena: *Hizkera filosofikoa*: hizkuntza gutxiagotu baten testuinguruan

GARMENDIA, Elixabete: *Zegamatik*: Arantzazura, pentsalariaren lehen paisaiak

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 239: Pandemiak, distopiak eta mundu berriak

ZUBIAGA, Mario: *Politika biluzik*: birusaren garaian

ETXEBERRIA, Arantza: *Mikro-bioa, gaitza eta natura*

AZKARRAGA ETXAGIBEL, Joseba: *Ekodistopia*: prospektiban, EHkopia perspektiban

ZUBIA, Irati: *Egia-ostea*: ziurgabetasun garaian

GABILONDO, Joseba: *Pandemiaren arrazoiaz*: konspirazioa, paranoia eta negazionismoa

CANO, Harkaitz: *Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 240: Torrealдай: euskara herri

AGIRRE, Lorea: *Maratoia*: korritzera atera gara. Joan Mari Torrealдай Joseba Intxausti,

Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategiren bihotz-begietan

ANAUT, Dabid: *Torrealдай: izena eta izana*, euskalgintzari emana

ARRULA, Garazi: *Zerrendero batekin*: solasean

MURUA URIA, Imanol: *Torrealдай eta prentsa*

OTAEGI, Lourdes: *Torrealдай*, euskal liburuaren zentsuraren aztertzaile

JUANENA, Agurtzane: *Biblioteka Nazionalaren ametsa XXI. mendean*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 241: Euskal kultura 2020

AGIRRE, Katixa: *Hekatonbearen urtea*: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna

BARANDIARAN, Alberto: *Sortuz ta sortuz*: bizitzen gera

OSA, Olatz: *Ezpatatik soka dantzara*

LANDABIDEA, Xabier: *2020ko Durangoko Azoka*: Immateriala

FANO, Dani; EIBAR, Eider; JOSEVISKY; UNANUA, Nerea: *Kulturaren urtea*: marrazkitan

UGARTE, Itziar: *Pandemiaren urtea*: kulturagintzan. Edurne Azkarate, Igor Elortza,

Xabier Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez

EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2018*

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzscheren pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertitate eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogo da (Nire aitorten filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatua*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 AIESTARAN, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *Ia guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristotelesen Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENSÂÏD: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wangermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzue etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



JAKINKIDE TXARTELA

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea



Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus



Jakin^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

